

hh  
hik hasi

191

20 urte euskal hezkuntza ospatuz




hik hasi-REN 20. URTEURRENA • ANGEL PEREZ GOMEZ • LOMCE-RI EZ •  
0-3 FORMAZIOA: MALAGUZZI • HAURRAK IRAKASLE UNIBERTSITATE ESKOLAN  
• OSASUN-EDUKIAK HEZKUNTZAN • IMANOL EPELDE PAGOLA

NOR  
GARIA?



# LEHENENGO SENTITU, ONDOREN PENTSATU ETA EKIN




Denak haserretzen gara, Piritx eta lagun  
zakurra ere bai. Izan gaitzen amonru  
eta guzti elkar maitatzeko gai.



Iluntasunetik beldurtzen du Pupu,  
amesgalztoek Lore, eta bakardadeak  
Porrotx. Piritxi babes eske datoz.



Marimototsek betaurreko magkoak jantzen  
ditu golzero, dena da zorion turri  
halok jantziz gero.



Hi egin da amona Josefina eta triste daude  
Pupu eta Lore. Laster ohartuko dira  
pupu batetik sortu daitezkeela bi lore.



# aurkibidea



**10**  
gaia

## HIK HASI-REN 20. URTEURRENA

20 urte beteko dira ikasturte honetan Hik Hasi euskal heziketarako egitasmoa sortu zela. Euskal irakaskuntzan ziharduten partaide guztien informazio-iturri eta eztabaidarako nahiz elkarlanerako gune izateko asmoz jaio zen, eta beste ezeren gainetik, euskal hezkuntza-sistema eraikitzea zuen jomuga. Aldizkaria eta formazioa izan ditu zutabe nagusi.



**18**  
elkarrizketa

## ANGEL PEREZ GOMEZ

Pedagogian doktore eta Didaktikako katedraduna Huhezira etorri da, eta bertan, besteak beste, oinarrizko konpetentziek egungo hezkuntza-erronkei erantzuteko hartzen duten garrantziaz jardun du, eta baita modu oinarrizkoagoan eskolak gaur egun dituen erronkez ere, gizartea aldatu den neurrian eskolaren erronka ere aldatu egin dela baitio.

5 editoriala

6 hizpide izan da

8 hizpide izango da

10 gaia

**HIK HASI, 20** urtez hezkuntzarako tresna eta bilgune

18 elkarrizketa

**ANGEL PEREZ GOMEZ** Didaktikako katedraduna

26 LOMCE-ri ez! EHn gure hezkuntza eraiki

28 0-3 zikloko hezitzaileen formazioa: Malaguzzi

32 ekarpenak

Haurrak Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskolan

34 galdeidazue

Nolako garrantzia dute osasun-edukiek euskal hezkuntzan? ANGEL BIDAURAZAGA

40 hik hasi-ren proposamena

ONDARTXO, itsas ondarea ezagutzeko erakusketa bizia

42 Atzeko atetik

IMANOL EPELDE PAGOLA

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostitza eta Arantzazu Muñoa. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Iñigo Larrañaga, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Arantxa Urbe. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urroza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Uxue Ugartemendia. Imanol Epelderren argazkia: Hitzen Uberan. Diseinua: Grafik. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Argazki Press. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2014-09-18). Kopurua: 3.600 ale. OHARRA: 189. zenbakian argitaratutako Gela alternatiboetako buruzko artikulua ere egilea Naiara Lizardi da.

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitzake. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

[www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com)

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SALA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



# 20. ikasturtean harpidetzen direnentzako **OPARIAK**



**hik hasi**  
harpidetuta



**Sarrionandlaren  
ipuin laburren  
liburua**



**Hazi Hezi**  
harpidetuta



**69 abesti  
jolasteko  
CDa**



+



+



[www.hikhasi.com/harpidetza](http://www.hikhasi.com/harpidetza)

# editoriala urria

## *Euskal Hezkuntza josten jarraitzeko ikasturtea*



**Erronkaz beteriko ikasturtea hasi dugu 2014ko irailarekin. Kanpotik datozen oztopoei erantzutea eta aurre egitea izango da euskal irakaskuntzan dihardugunon erronkatarik bat aurten. Horretan bere alea jarri nahi du hik hasi aldizkariak, 20 urte betetzen dituen ikasturte berezi honetan.**

Ziburuko Kaskarotenea ikastolaren egoera litzateke euskal hezkuntzaren metafora: euskaraz ikasi eta irakasteko borondate herritarren aurrean, oztopo administratiboa, isunak eta mehatxuak, ikasturtea hastearekin batera; baina multen eta mehatxuen gainetik, haurrek, gurasoek eta irakasleek aurrera darraite, ilusioz, sendo.

Erronkaz beteriko ikasturtea hasi dugu 2014ko irailarekin. Kanpotik datozen oztopoei erantzutea eta aurre egitea izango da euskal irakaskuntzan dihardugunon erronkatarik bat aurten; Kaskarotenearen egoera adibide bat da, baina suprefetaren mehatxua orokorragoa da Seaskako ikastolen gainean. Hegoaldean, berriz, LOMCeren inplantazioari aurre egiteko erronka dugu hezkuntza komunitate osoak. Ezarri da LOMCE, ez Eusko Jaurlaritzak eta are gutxiago Nafarroako Gobernuak ez baitute legea osoki ez ezartzeko neurririk hartu. Konpromiso zehatzak hartzeko garaia da, erantzun bateratuak emateko unea, Euskal Herriko hezkuntza-eredu pro-

pioa elkarrekin eraikitzeko premia dugu. Urriaren 11n Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan *Euskal Herriaren gure hezkuntza eraiki*, LOMCeri ez inposizioei ezlelopean egingo diren manifestazioak indarrak biltzeko gune izango dira.

Hik Hasi egitasmoak eskuartean duzun tresna hau, aldizkari hau LOMCeri aurre egiteko tresna izan dadin du ikasturte honetako erronkatarik bat. Euskal hezkuntza sendotzen eta eraikitzeko estrategiak partekatzen, eztabaidatzeko eta garatzeko tresna eta elkargune izan asmo du aldizkariak.

Baina erantzuteko erronka baino, eraikitzekoa, sendotzekoa dugu aurrean. Euskal Hezkuntza propioa, josten, antolatzen, taxutzen, sendotzen jarraitzea. Erantzutearen estrategia baino, eraikitzearen estrategia emankorragoa eta eraginkorragoa izango dugu erronkaz beterik datorkigun 2014-2015 ikasturte honetan.

LOMCeri aurre egiteko tresna izatea ez da Hik Hasi egitasmo pedagogikoaren aurtengo desafio baka-

rra. Erronkaz beteriko ikasturtea da hasi berri dugun hau. 20. ikasturtea du eskuartean duzun aldizkari honen. Eta urte berezi izan dadin nahi dugu, euskal hezkuntzaren komunitatea osatzen dugun guztiontzat ere, elkartzeko, eztabaidatzeko, hausnartzeko eta eraikitzeko urtea. Asmo horrekin hainbat ekimen berri egingo ditugu 2014-2015 ikasturtean zehar, unean unean partekatzen joango garenak, guztiok parte har dezagun.

1995eko ekainean ikusi zuen argia *bik hasi* aldizkariaren lehen zenbakiak. Hainbat lege-erreforma, dekretu, gobernu-talde, oztopo, isun eta euri joan dira ordutik. Gauza asko eraiki dira, adostasun ugari lortu, irakasle asko euskaldundu, eskolak hobetu... 20 urte geroago, aldizkariaren lehen editorialean idatzi genituen hitzak asmo eta sinesmen sendoz berridazten ditugu: "hilabete-kari honen helburu nagusia Euskal Irakaskuntzaren partaide garen guztion informazio, eztabaida eta elkargunerako bitarteko bat izatea da". Guztiok dituzue ateak zabalik.

# hizpide



## Kaskarotenea ikastola bizirik irauteko ahaleginean

Ikasturte hasieraz geroztik, Ziburuko Kaskarotenea Ikastola ixteko arriskuan da, Guy Poulou Ziburuko auzapezak ez diolako hitzarmena berri ikastolari. Kaskarotenea ikastola orain bi urte sortu zuten, Ziburuko Marinela auzoan, eskola publikoko eremuan. Orduan bi urteko hitzarmena sinatu zuten herriko etxearekin, baina joan den uztailaren 5ean amaitu zen hitzarmena.

Kaskarotenea ikastolaren eta herriko etxearen arteko liskarrean, Paueko Auzitegi Administratiboak arrazoia eman dio Ziburuko auzapezari. Ondorioz, ikastola irailaren 9a baino lehen eskola uztera derrigortu zuten. Kaskaroteneako haur zein gurasoek bertan jarraitu dute. Egoera larria bada ere, gurasoek “biziki argi” dutela ziurtatu du Paxkal Indo Seaskako presidentek: “Beste aukerarik ez dugu eta bertan segituko dugu”.

Epailearen aginduari eta herriko etxeak zehaztutakoari segituz, ikastolak 100 euroren zigorra ordaindu behar du bertan jarraitzen duen egun bakoitzeko. Horrez gain, argindararren, uraren nahiz bestelako gastuei ere aurre egin behar izan die ikastolak. Horiek 100 euroko zigorrari batura, 200 bat euroko gastua ekarri dio eguneko. Horregatik, sinadura bilketaz ez ezik, [www.seaska.eus](http://www.seaska.eus) webgunearen bidez, ikastola diruz laguntzeko kanpaina abiatu dute.

Kaskarotenea ikastola aurrera egiteko aukerak aztertzen eta proposamenak lantzen ari da, eta aurrez aipatu gabeko proposamen bat egin berri dio Herriko Etxeari: Pirinio Atlantatikoetako Kontseilu Orokorren lur bat erabiltzea. Departamenduko erakundearen oniritzia badi Ziburuko ikastolak, eta herriko etxearen onespina bertzerik ez zaio falta proposamenari bide emateko.

## Seaskak iaz baino 137 ikasle gehiago ditu

Azken urteetako hazkunderari eutsi dio Seaskak aurren ere, iaz urte “biziki gogorra” izan zuten arren. Izan ere, batetik suprefetak agindu zuen Hendaiaiko ikastola berria egiteko lurrik ez ematea, baina dagoeneko Hendaiaiko ikastolak erdietsi du akordioa hango herriko etxearekin. Egun Pausun ari diren ikasleak hiri barneko eskolara mugituko dira eta eskola publikoarekin erdibanatuko dute egoitza. Bestetik, Beskoitzen ere arazoak izan zituzten iaz, eta gero “Hazparneko lurraldean barna hedatu ziren mehatxuak”, Seaskako kideek azaldu bezala. Aurren Zibururi egokitu zaio. “Baina erasoan aitzinean beldurtu gabe, mobilizatuz eta elkartasunez, indartsuago jalgitzen gara gatazka horietatik”.

Horren adierazle da iaz baino 137 ikasle gehiago izango dituela Seaskak aurren. Orotara 3.270 ikasle inguruk hasi dute ikasturtea. Lizeoan bezala hiru kolegioetan egin du gora ikasle kopuruak, baina lehen mailako ikasleen artean nabaritzen da hazkunde handiena. Garaziko ikastolaren ikasle progresioa nabarmendu dute, hain justu. Orain zazpi urte lau rogei ikasle zituen ikastolak, eta aurren 142 ikaslek hasi dute ikasturtean.

Eskola erritmoen erreformara egokitzeko prest dagoela ere jakinarazi du Seaskak.

# izan da

## Heziketa behar bereziko ikasleei murrizketek egin dieten kalteaz ohartarazi dute

Garuneko paralisia, Down sindromea, autismoa eta gisako gaitzak dituzten ikasleen heziketan murrizketa nabarmenak gertatzen ari direla salatu dute EAEko 80 bat familiak. Eusko Legebiltzarrean izan dira euren seme-alaben heziketa kalitatea

gutxitzen ari dela azaltzeko, eta bizi duten “ezinegona eta kezka” adierazteko. Espezialistek eskoletan egiten duten ordu kopurua urritzen ari dela nabarmendu dute, eta gaineratu irakasleekin eta ikastetxeekin ez dutela behar luketen komunikaziorik.

## Laugarren urtez, oposizioarik ez Nafarroan

Hasi berri den ikasturtean ere ez dute oposizioarik egingo Nafarroako hezkuntza publikoan. Jose Iribas Nafarroako Hezkuntza kontseilariak jakinarazi du “ezinezkoa” izango dela deialdia egitea. Atea zabalik utzi du, nolana ere: “Hurbil egon daiteke oposizioen ostertza”. Hortaz, prestatzen jarraitzeko eskatu die irakasleei, nahiz eta aurreko lau urteetan gobernuak ez duen deialdirik egin.

EILAS sindikatuak salatu du behin-behinekotasuna areagotuko duela aurten oposizioarik ez egiteak, eta ohartarazi du hezkuntza-proiektu batzuk “arriskuan” jartzen dituela eskoletako behin-behinekotasunak. Gogorarazi du finko ez dauden irakasleen baldintzak gero eta okerragoak direla: uztailean eta abuztuan kontratuak mozten dizkiete, ordurako lanaldiak gehiago dira...

## Eskolaz aldatzera behartu dute neska bat, ustezko erasotzailea han delako

Genero indarkeria salatu duen neska bat ikastegiz aldatzera behartu du Nafarroako Adingabeen Epaitegiak, urruntze agindua duen ustezko erasotzailea zentro berean ikasten ari delako. Neskak Lanbide Heziketako ikasketak abiatu nahi zituen Elizon-

don, baina aukera hori ukatu dio epaileak, mutilak bertan ikasten delako, eta aldentzea urratuko litzateke elako; ustezko erasotzaileari eman dio lehentasuna, matrikula aurretik eginga zuelako. Ondorioz, Iruñean matrikulatu behar izan du neskak.

## IAn egindako lanaz ere deklaratu behar izan dute gazte auzipetuek

Segiko kide izatea egotzita, irailaren 22an hasi zen 28 gazteen aurkako epaiketan, Ikasle Abertzaleetan egindako lanaren gainean ere deklaratu behar izan zuten gazteetako batzuk. Tartean zen Ikoitz Arrese Ikasle Abertzaleak taldeko bozeramailea. Tortura salaketa gogorak egin ostean, fiskaltzak leporatutako ekitaldi, jardura edota paperei buruz aritu ziren auzipetuek: herriko gazte asanbladan, gaztetxean, etxebizitza eskubidearen aldeko plataforman, aisialdi taldean, auzo elkarteetan, Ikasle Abertzaleetan... egindako lanari buruz, hain zuzen.



# hizpide



## Hezkuntzari buruzko gune irekia egingo da urriaren 24an eta 25ean Leioako Laboragunean

“H@ZKUNTZARI: Ze aukera daukagu ikasketan, hazkuntzan, hezkuntzan?” izenburupean, heziketaren eta hazieraren inguruko hausnarketa egiteko topaketa antolatu da urriaren 24 eta 25ean Leioako Laboragunean. Gune irekiko formatoa erabiliz hainbat galderaren inguruan mintzatu eta gogoeta egiteko aukera izango da: Zer, non eta norekin ikasi eta konpartitu? Zer alternatiba daukagu? Balio digute? Beste aukera batzuk behar ditugu? Nola egin hori? Ikasi-hazi-hezi hirukiaren inguruan patxadaz hausnartzeko espazioa izango da.

Topaketako deialdian azaldu bezala, ikasteko baldintzek gure osasunean, harremanetan, hazteko aukeretan eta komunitatearen ongizatean eragiten dute. Guztioi eragiten digu gai honen: familiari, leinuari, auzokoei, politikariei, kazetariei, gizarte laguntzaileei, hezitzaileei... “Badakigu, bai, gero eta jende gehiago ari gara bila eta eraikitzen. Ikastea-hezteak ulertzeko modu zahar-berriei erantzuteko guneen bila. Eta gainera, gero eta argiago, erabakitze eskubidea aldarrikatzen dugu, ikasketa eta heziketa ardura dagoen guneetan eta haien eraldaketan parte izan nahi dugu”.

Urriaren 24ean eta 25ean, ostiralez eta larunbatez, 10:30etik 19:00etara izango da saioa, Leioako Laboragunean, Iturriondo 10, 2.ean (Leioako metro geltokiaren ondoan). Plaza mugatuak daude eta izena urriaren 22a baino lehen eman behar da [hezkuntzari.wordpress.com](http://hezkuntzari.wordpress.com) helbidean. Umekin doazentzat zaintza zerbitzua jarri da, eta parte hartzeko 20 euro ordaindu behar dira.

Informazio gehiagorako [hezkuntzari@gmail.com](mailto:hezkuntzari@gmail.com) helbidera idatzi edota 661226847 telefono zenbakira dei daiteke.

## Gitarra ikastaroak, Xirula Mirulak antolatuta

Beste urte batez, hezkuntza munduan aritzen direnentzat gitarra ikastaroa antolatu du Xirula Mirulak. Ezertxo ere ez dakiten irakasleentzako izango dira saioak, eta helburua, ikastaro amaieran eskola giroko hainbat abesti herrikoi gitarraz laguntzeko gai izatea. Urriaren 24ean hasita, ostiraleroko izango dira eskolak 18:00 etatik 19:30era. Ikastaroa ekainaren 5ean amaituko da. Donostiako Amara auzoan (Catalina Erauso, 12) izango dira eskolak. Ikastaro osoa 225 euro kostako da eta ikasle zein langabetei prezio berezia egingo zaie. Izena emateko 943 463555 telefono zenbakira deitu edo [xirula@euskalnet.net](mailto:xirula@euskalnet.net) helbidera idatzi behar da.

## Hezkuntza batzarra Kuban

Bi urtetik behin izaten den nazioarteko “Latinoamerika eta Karibe. Hezitzaileen batasunerako topaketa” biltzarra egingo da Habanan 2015eko urtarrilaren 26tik 30era. Biltzarrean parte hartzeaz gain, Habanako eskolak bisitatzeko eta bertako ikuskizunetara joateko aukera emango da.

Hezkuntza arloko gairen baten inguruko aurkezpena egin nahi duten profesional eta adituek ere badute biltzarrean parte hartzeko aukera. Azaroaren 14a baino lehen entregatu behar dute txostenaren laburpena. Informazio gehiago [www.pedagogiacuba.com](http://www.pedagogiacuba.com) webgunean lor daiteke.



# izango da

## Reggio Emiliako esperientzia ekarriko du Hik Hasik Bilbora eta Donostiara, azaroan

Udazkenero bezala, 0-3 urte bitarteko haurrekin ari diren hezitzaileen-tzako prestakuntza eskainiko du Hik Hasik. Aurtengoan, mundu zabalean hain ezagunak diren Italiako Reggio Emiliako Udal Haur Eskoletako esperientzia ezagutzeko aukera izango da azaroaren 14an Bilbon eta azaroaren 15ean Donostian. Maddalena Tedeschi pedagogoak eta Reggio Emiliako pedagogia arduradunak, eta Chiara Spaggiari hezitzaileak eta Reggio Emiliako Gianni Rodari 0-3 haur eskolako koordinatzaileak bertako haur-eskolen teoria eta praktika pedagogikoa azalduko dute.

Mundu osoan dira ezagunak Reggio Emiliako haur-eskolak eta nazioarte mailako aitortza dute. Alde batetik, hezkuntza komunitate osoaren —haurrak, irakasleak, gurasoak, bestelako profesionalak, herritarra, bertako elkarteetako kideak...— parte hartzea dutelako ardatz eta gertuko gestioan —modu deszentralizatuan— oinarritzen direlako; eta bestetik, Loriz Malaguzziren pedagogia darraitelako eta praktika horrek haur bakoitzaren garapen osoa duelako xede.

Reggio Emilia Italia iparraldeko hiria da, komunismoak eta herri mugimenduek indar handia izan dute bertan, eta mugimendu horietatik abiatuta sortu ziren bertako haur-es-

kolak. Instituzioek bat egin dute herritarrengandik sortutako hezkuntza proiektuarekin. Haurren eskubideen defentsan ados jarri dira guztiak eta haurtzararen kultura sortu da hortik. Haurra erdigunean jarri dute eta oinarri horren gainean eraiki dute euren lan egiteko modua, filosofia, esperientzia, gestioa... ereduak, azken batean. 50 urte baino gehiagoz 0-6 urte bitarteko haurrekin aritu badira ere, azken bost urteetan, Lehen Hezkuntzan ere praktikan jarri dute.

Jardunaldi honek gainera, bat egin du 0-3 zikloko hezitzaileentzat antolatutako bi urteko formazioarekin. Bigarren ikasturteak Loriz Malaguzziren filosofia baitu ardatz nagusi.

Azaroaren 14ko saioa Bilboko EHUren Bizkaia aretoan (Guggenheim ondoan) izango da eta goizez-egingo da, 8:45etatik 14:00etara artean. Bertan Tedeschi eta Spaggiari ariko dira dira solasean, eta galde-erantzunetarako tartea ere egongo da. Azaroaren 15ean, Donostian EHUren Barriola eraikinean (Aularioan) saio bera egingo da goizez. Arratsaldean, berriz, "Cinema paradiso" filma emango da eta Alfredo Hoyuelos Iruñeko Udal Haur Eskoletako tailerista haren inguruan mintzatuko da.

Izena emateko epea zabalik dago, [www.bikbasi.com](http://www.bikbasi.com) webgunean edota 943 37 14 08 telefono zenbakian.



## LOMCEren aurka "batera aritzeko" deia egin dute hainbat eragilek

LOMCE legearen ezarpenaren lehenengo ikasturtea hasi da Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan; protesta artean hasi ere. Hego Euskal Herriko hezkuntza eragileak ez dautte prest egonean egoteko. "Konpromisoak" eskatu dituzte LOMCEren aurkako plataformako kideek, eta eskua luzatu diete bide horretan "elkarlanean" aritzeko prest dauden eragile eta instituzio guztiei. Mobilizazioak ere antolatu dituzte: urriaren 11n manifestazioak egingo dituzte Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan, *Euskal Herrian gure hezkuntza eraiki, LOMCEri ez, inposizioei ez lelopean*. Manifestazio horiek "abiapuntu" izatea nahi dute "Euskal Herriko hezkuntza ereduak eraikitze bidean", eta noranzko horretan "urratsak egiteko hautua" eginda dutela esan dute.

Eusko Jaurjaritza eta Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Sailak kritikatu dituzte eragileek, eta LOMCE ez aplikatzeko urratsak eskatu dizkiete tokian tokiko agintariei.

# GAIA

**hik hasi,  
20 urtez tresna eta bilgune**





**20 urte beteko dira ikasturte honetan Hik Hasi euskal heziketarako egitasmoa sortu zela. Euskal irakaskuntzan ziharduten partaide guztien informazio-iturri eta eztabaidarako nahiz elkarlanerako gune izateko xedearekin jaio zen, eta beste ezeren gainera, euskal hezkuntza-sistema eraikitzea zuen jomuga. Arian-arian urratu du bidea eta 20 urtez euskal hezkuntzarako tresna eta bilgune izateko helburuarekin jardun du lanean.**

# G

Euskal irakaskuntzaren arloko partaide guztien informazio, eztabaida eta elkargunerako bitarteko izateko jaio zen Hik Hasi orain dela 20 urte. Irakaskuntza euskalduna eta autonomia aldarrikatzen zuen, zatiketa adimistratiboak gaituz Euskal Herri osorako izango zena. Argi zuen zeregina: herri-tarrek kalitetazko euskal hezkuntza jasotzeko duten eskubidea bermatzea. 1994-1995 ikasturtean, proiektuan parte hartu edota ekarpenak egin nahi zituen orori ateak zabalik abiatu zen egitasmo pedagogikoa. Orduz geroztik, Euskal Herriko nahiz atzerriko profesional eta adituen teoretatik edan du eta hemengo zein kanpoko hamaika ikastetxetako esperientziatik elikatu da.

Nola egin euskal kulturaren oinarrituko den curriculum? Hezkuntza-eredua deszentralizatzeko zer egin? Ikastetxeek ez ote lukete autonomia handiagoa behar? Haurrak behar adinako protagonismoa ote du gure eskoletan? Euskal irakaskuntza osatzen zuten komunitateko partaideak —gurasoak, ikasleak, irakasleak, beste profesionalak...— aspalditxoan ari ziren hezkuntza-sistemaren inguruan gogoeta egiten, eta hausnarketa horien bueltan sortu zen Hik Hasi egitasmo pedagogikoa.

Abiapuntuan, bi oinarri zituen: baitetik, herriarekiko atxikimendua, hau da, guztientzako euskal eskola egikaritzeko nahia; eta bestetik, eskola berriaren ildoak, konduktismoaren bidetik zetorrena. Lehen puntuari dagokionez, Irakasle Elkartean —batez ere Gipuzkoako ikastoleako irakaslez osatua— euskararekiko eta herriarekiko lotura nagusitzen ari zen; euskal munduarekiko sentsibilitatea zuten bertako kideek eta euskal hezkuntza nola garatu hausnartzen hasiak ziren. Bigarren puntuari dagokionez berriz, Adarra Pedagogia Elkartek ireki zuen bidea. Erdigunean haurra jarriko zuen eskolaren ezaugarriak eta gakoak mahai-

gaineratzen hasi ziren eskola berriaren eta konstruktibismoaren aitzindari diren hainbat pedagogo oinarri hartuta, hala nola, Montessori, Freinet, Freire, Piaget, Vigotski, Malaguzzi... Bi ardatz horiei Kataluniako erreferentzia gehitu behar zaie —Rosa Sensat elkar-tearena, hain zuzen ere— Hik Hasi-ren sorrerako testuingurua ulertzeko.

Euskaltzaletasuna eta pedagogia berria. Bi ardatz horiek uztartzen saiatu zen Hik Hasi. Joxe Mari Auzmendi egitasmoaren sortzaile eta kideak hala gogoratzen du garai hura: “Alderdi ideologikoari dagokionez, Irakasle Eskolan nagusi zen euskaltasunean du mui-na Hik Hasi-k, Euskal Herrirako gure hezkuntzan sakondu nahi genuen. Oinarria zera zen: euskal curriculum, eskolak irakasle propioak izatea eta ikastetxe bakoitzak bere hezkuntza proiektua garatzeko aukera izatea. Era beran, gainera, Irakasle Elkarteko irakasle asko eskola berriaren filosofia eta teoria ikastetxeetan txertatzen aitzindari ari ziren izaten. Adarra ere norabide berean ari zen lanean, haurra erdigunean jarriz konstruktibismoa lantzen; alderdi pedagogikoari dagokionez, horixe genuen oinarri”. Atzera egin eta Hik Hasi-ren egitasmo nagusiak errepasatuz —aldizkaria, formazioa, jardunaldiak, monografikoak, baliabide pedagogikoak, bestelako materialak— bi zutabe horiek izan dira 20 urteotan oinarri nagusi: fokua haurraren jartzen duen pedagogia berria eta Euskal Herriarekiko lotura.

Eskola berriarekin nahiz euskaltasunarekin loturiko ideiak nola gorpuztu hausnartzen hasi ziren Irakasle Elkartearen bueltan. Behin eta berriz agertzen zen euskal irakasleentzat erreferentzia eta bilgune izango zen tresna baten beharra. UEUk pedagogia sailaren barruan udaro antolatzen zituen ikastaroetan ere, pare bat urteotan euskal hezkuntzak zer eta nola behar zuen eztabaidatu zen eta han ere, ondorio berberetara iritsi ziren: tresna horrek aldizkari bat izan behar zuen.

# hik hasiren 20. urteurrena

Bizpahiru urteko hausnarketen ondoren, 1994-1995. urtean Hik Hasi egitasmoa egituratzen hasi ondok aldizkari bat sortzea adostu zuten kideek. Hori-ze izango zen egitasmoaren bizkarrezurra. Hala, Irakasle Elkarteak desagertu egin zen eta Hik Hasi egitasmoa sortu zen hutsetik, aldizkaria ardatz zuela. Handik hurrengo ikasturtean ostera, aldizkariaren osagarri, formazio-saioak eskaintzen hasi zen, alor horretan euskaraz zegoen hutsunean betetzeko premiaz oharturik.

Egitasmoaren eta aldizkariaren sortzaile, laguntzaile, bultzatzaile, partaide eta aholkularien artean izen ugari aipatu behar dira: Itsaso Alkorta, Abel Ariznabarreta, Manu Arregi, Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Itziar Barriola, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Cesar Blanco, Aines Dufau, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Arantxa Goiburua, Itziar Goñi, Xabier Isasi, Mari Karmen Irastorza, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Kristina Mardaraz, Joxi Oiarbide, Lontxo Oihartzabal, Kepa Perez Urraza, Karmele Perez, Agustina Pontesta, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Mailde Sainz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Arantxa Urbe, Ankelo Usobiaga, J.A. Zubeldia...

1995eko ekainean ikusi zuen argia *bik basi* aldizkariaren 0. zenbakiak. Lehen aldizkari hartan argi ageri zen moduan, irakaskuntza euskalduna eta autonomoa eraikitzea zen helburua, “Nafarroa, Iparraldea eta Euskal Autonomia Elkarteko zatiketa administratiboaren gainetik gure irakaskuntza ahalik eta gehien garatzeko herria egiten ari den ahaleginaren alde”. Horrela jarraitzen du: “Euskal kulturaren oinarritutako curriculum propioaz, irakasle-



Hik Hasi-ko gaur egungo taldekide batzuk, goran; Zatoz jolastera-ren filmaketa, behean.

go iraunkor eta euskaldunaz, Euskal Herritik kanpora hartutako erabakien menpe ez dagoen eredu deszentralizatuz, zentruen autonomiaz eta eraikitzen ari den herri bati irakaskuntzarako zor zaion finantziario publikoaren igoera nabarmenaz”. Euskal Herrian oinarrituriko euskal hezkuntza propioa eraikitzen laguntzea izan du, bada, egitasmoak beti ipar.

Hasieran SL bezala sortu zen Hik Hasi, egitasmoko kideek euren poltsikotik dirua jarrita —50.000 pezetako 30 partizipazio— eta langile bakarrekin, Joxe Mari Auzmendi. Geroztik lan-taldea handituz eta egonkortuz joan da eta Hik Hasi kooperatiba bilakatu da, kooperatibismoaren filosofiarekin bat egiten duelako. Orain zortzi urte, 2006. urtean Argia Saria eman zio-

nean, saritzeko arrazioen artean aipatzen zen moduan, hasieran proiektuan inork gutxi sinesten bazuen ere —alde batetik, ez zitzaizkako bideragarritasun ekonomikorik ikusten, eta bestetik, zalantzan jartzen zelako horrelako proiektu batentzat lekurik ba ote zegoen— hogeiki urtetako ibilbideak probatu du Hik Hasi egitasmoaren beharra.

## Hik Hasi, batasunaren bila

“Euskalduna, Nazionala, Irakasleena, Baterakoia, Irekia, Plurala, Independentea” ezaugarripean, euskal hezkuntzako era guztietako eragile eta partaideen topagune, bilgune, eztabaida-gune izateko sortu zen Hik Hasi, heziketaren arloan lanean zebilen jendea elkartu eta Euskal Herrirako hez-

kuntza-eredua eraikitzeko helburua-rekin.

20 urteko ibilbidean Hik Hasi behin eta berriz saiatu da batasuna bilatzen: batetik, hezkuntzaren arloko eragile guztiekin —ikastolak, kristau eskolak, eskola publikoak, guraso elkarteak, sindikatuak, erakundeak, unibertsitateak, ikasle taldeak, bestelako hezkuntza eragileak...— harremanetan egonaz eta batek zein bestek antolatutako topagune nahiz jardunaldietan parte hartuz; eta bestetik, bere inizatibaz hezkuntza arloko eragile horiek guztiak mahai beraren bueltan eserarazi eta denen arteko akordioak bilatzen saiatuz.

Batasun eta akordio nahiaren ispi lu da, esaterako, Hik Hasi-ren ekimenez 1999. urtean osatu zen Hezkuntzaren Gizarte GUNEA. Ainhoa Azpiroz Hik Hasi-ko kide eta kazetariak azaldu bezala, eta 2000. urteko urtarrileko *bik basi* aldizkarian jasota dagoen moduan, hezkuntzako gai ezberdinen inguruko eztabaida eta hausnarketarako bilgune izan nahi zuen GUNEAk, betiere oinarriko abiapuntua garbi edukita: Euskal Herriak bere Hezkuntza Sistema propioa behar duela. “Guztiok osatzen dugu Hezkuntza Sistema, gurasook, ikasleok, langileok... eta garrantzitsua da ahalik eta puntu gehienetan ados jartzea denok nahi dugun Euskal Hezkuntza Sistema eratu ahal izateko”. Euskal Herriko hainbat eragilek hartu zuten parte: BIGE, Ikastolen Elkarte, Kristau Eskolak, Ikasbatuaz, Sortzen, Iparraldeko Erakasleak, ELA, LAB, EILAS, Ikasle Abertzaleak eta Hik Hasi. Hainbat hilabete-tako lanketaren ondotik, GUNEAk “Euskara Irakaskuntzan” gaiaren inguruan aitzindari den Adostasunen Txostena aurkeztu zuen 1999ko abenduaren 11n.

Ildo berean, Nazio Eztabaida Gu-neak bultzatuta egin zen Euskal Herri-ko Oinarriko Hezkuntza Akordioaren koordinatzaile lanak egin zituen Hik Hasi-k eta akordioaren erredakzioan ere parte hartu zuen. Hain beharrezko ikusten den euskal hezkuntzarako lege propio baten proiektuaren markoa ezartzen du Hezkuntza Akordioak. 2006ko urrian aurkeztu zuten oinarriko testuak euskal herritarren hezkuntza eskubideak eta hezkuntza publikoaren kontzeptua bildu zituen: “Denona denari esaten zaio ‘publikoa’: guztiontzat irekia denari, denon ongiari begiratzen dionari eta guztiontzat aukera berdintasuna garatzen duenari. ‘Hezkuntza publikoa’, beraz, herrien eta herritar guztien garapenerako beharrak asetzen dituen hezkuntza izango da, aukera berdintasunean eskubide guztiak ziurtatuko dituen kalitatezko zerbitzua”. Euskal Herri oso-ko hezkuntzako arlo guztietako hainbat eragilek sinatu zuten akordioa. Arantxa Urbe Hik Hasi-ko kidea izan zen akordioaren testua prestatzen parte hartu zuenetako bat eta bere hitzetan, euskal hezkuntzaren eraikuntzarako oinarri oso sendoak jarri ziren

akordioarekin, oraindik ere “gaurkotasan eta balio handia dutenak”.

Hizkuntza Ereduak Gainditzeko Lege Proposamena prestatzen ere aritu zen Hik Hasi. Hain zuzen ere, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak hala eskatuta, Arantxa Urbek ondu zuen testua. Elebitasunetik eleaniztasunera igarotzeko proposamena izan zen eta hezkuntzaren esparruko eragile nagusi denek babestu zuten.

Adibide horiek erakusten dute euskal hezkuntza eremu osorako tresna eta bilgune izateko egindako ahalegina, Xabier Sarasua Hik Hasi-ko kidea- ren ustez: “Hik Hasi euskal irakasleentzako tresna izan dela uste dut. Bilgune izatearena are eta zailagoa da, baina Hik Hasi-k batasunaren bide horretan parte hartu du sorreratik, eta ez hori bakarrik, askotan bultzatzaile, dinamizatzaile eta eragile nagusi lanak ere egin ditu”. Hala ere, hasierako helburu guztiak ez dira erdietsi; esaterako, saiakerak egin diren arren, Hik Hasi-k apenas lortu duen Bigarren Hezkuntzan eragiterik. Josu Txapartegi Hik Hasi-ko kideak gogoratzen duen moduan bestalde, hezkuntzaren alderdi teknikoa edo pedagogikoa indarra hartzen joan



Finlandiara eginitako bidaiaren pedagogikoa.

# hik hasiren 20. urteurrena

den heinean, alderdi politikoa —egiturari, hezkuntza proiektuari, dago-kiona— ahultzen joan da: “Iruditzen zait biharko egunean arlo pedagogikoa eta politikoa orekatzeko bidea egin beharko genukeela. Irakaslea jabetu dadila hezkuntza proiektuak, egiturak, talde-lanak, bere jardunaren balio publikoak duen garrantziaz. Gela barruko lana inportantea da, baina baita organizazioa, ideiak, zentroko filosofia, antolaketa, etab. ere”.

## Eskola, etxea, herria

Beste eragileekin elkarlanean aritzeaz gain, Hik Hasi-k bere kasa ere ari da bidea urratzen. Lehen aldizkarian *bik hasi*-ren ezaugarrien artean “Irakasleena” zela aipatzen zen; eta izan ere halaxe hasi zuen bidea: eskolara eta bertan lanean ziharduten profesionaleri begira. Pixkanaka, ordea, haurra erdigunean jartzen duen eskola berriaren filosofiari jarraiki, haurraren jarrizko fokua, umea hartu zuen erdigunetzat. Haien heziketa beharrak hauteman eta ase nahian, haurrak eskolan ez ezik, etxean eta kalean ere bizitzaren zati garrantzitsua egiten zutela konturatu zen Hik Hasi eta beste esparru horietan ere hezi egiten zirela. Abesti-bildumen, jolasen-bideoa edota Pirritx eta Porrotxekin grabatutako filmaren bidez, poliki-poliki, familietara gerturatu hasi zen. Hala, etxeugaritara heldu ziren *69 abesti jolasteko* diskoa edota *Zatoz jolastera* nahiz *Ilargiaren sekretua* pelikulak.

2011n beste jauzi estrategiko bat egin zuen: 17 urtez haurraren heziketa hobetzeko ekarpenak egin ostean, *Hazi Hezi* aldizkariaren haziera eta heziketa aldizkaria sortu zuen Hik Hasi, umeen behar emozional, fisiko eta psikologikoak asetzeko xede hartuta. Le-

## Ospatzeko urtea

2014-2015 ikasturtea ekimen ugari betea dator. Ohiko moduan, *bik hasi* eta *Hezi Hazi* aldizkariak argitaratzen jarraitzeaz gain, 0-3 zikloko hezitzaileen formazioarekin ere aurrera darrai Hik Hasi-k, aurtun 2. promozioarekin hasi da, baina horrez aparte, beste hainbat proiektu burutzeko probestu nahi du 20. urteurrena. Ikasturtea hasteko Reggio Emiliako esperientzia ezagutzeko aukera berri bat izango dute hezitzaile eta herriarrek: Loris Malaguzziren pedagogia, udal eskola-sistemen berezitasunak, familien parte-hartze handiak... Era berean, udazkenean datozen lau urteetarako plan estrategikoa ere burutuko du; 2015. urteari hasiera emateko berriz, bigarren hezkuntzan diharduten profesionalekin hainbat saio egingo dira ziklo horretan dauden hutsunak, indar-guneak, kezka eta erronkak identifikatu eta hausnarketa egiteko; udaberrian, bestalde, eskola herritarraren edo denontzako eskolaren inguruko biltzarra egingo da eta topaketari amaiera emateko goraipamenak banatuko ditu Hik Hasi-k. Aipatutako guztiaz gainera, urteroko legez, Udako Topaketak eta bestelako ikastaroak ere antolatuko ditu.

hen *Hazi Hezi* aldizkariak dioen moduan, “Etxekoentzako, bai. Baina komunitate edo tribu gisa hartuta etxea, non gurasoak, aiton-amonak, izebak,

osabak, zaintzaileak, haurrideak... dauden. Haiena eta guztiona baita haurraren heziketa, jendartea osatzen dugun bakoitzarena. Eta haiei —guztiori— eskaini nahi diegu haurrak hezten laguntzeko tresna hauxe”.

Kalera, herrira, komunitatera ere ireki da Hik Hasi egitasmoa, *Herri hezitzailea*, *eskola herritarra* proiektuarekin. Egitasmoa azken urteetan hainbat alorretan gertatutako eboluziotik eratorritako proiektua da. Auzmendik esplikatu bezala, hezkuntzarako abiapuntua familia da, horren ondotik eskolatzea dator, eta horrekin batera baita heziketarako gune sozialak ere, hau da, kalea, herria eta bertako komunitatea, instituzioekin loturan: “Hiru esparru horiek osatzen dute haurren bizitza eta guztietan hezten dira umeak. Beraz, guztiek harremana izan behar lukete elkarrekin eta guztietan saiatu behar genuke balio hezitzaileak sustatzen”. Eskola herritarraren filosofiari jarraituz, garrantzia hartu du gertukoak, ingurukoak, herrikoak eta horren harira sortu dira tokian tokiko kultur ondarea jasotzeko eta ezagutarazteko baliabide pedagogikoak. Hik Hasi-k kide Arantxa Urbek Oorereta-Errenterriako materiala ondu zuen; eta ondoren Arrasaterako eta Azpeitirako baliabide pedagogikoak ere sortu ziren Hik Hasi-ren aholkularitzarekin.

Azken urteetan, eskolara, etxeetara nahiz herrira iristeaz gainera, Hik Hasi mundu birtualean ere bidea egiten ari da. [www.bikhasi.com](http://www.bikhasi.com) webgunean hezkuntzaren arloko albisteen berri emateaz aparte, *bik hasi* nahiz *Hazi Hezi* aldizkarietako edukiak ere bertan zintzilikatzen dira eta sare-sozialen —Facebook, Twitter...— bidez hedatu, euskal komunitatearen eremu zabalera iritsiz.

## Aldizkaria, bizkarrezur

Hik Hasi egitasmo pedagogikoak aldizkaria bizkarrezur izan du sorburutik. Hezkuntza komunitatea euskaraz informatzeko, formatzeko eta kohesionatzeko tresna izan baita aldizkaria, 0 aldizkariaren editorialak adierazten zuen eran: “Sortu nahi dugun edota dagoeneko sortzen ari garen hilabetez honen helburu nagusia Euskal Irakaskuntzaren partaide garen guztion informazio, eztabaida eta elkargunerako bitarteko bat izatea da”.

1995eko ekainean argitaratu zen 0 zenbakia. Lasarte-Oriako industrialdean *Argia* dagoen lekuan bertan izan zuen lehen erredakzioa *hik hasi*-k, eta Joxe Mari Auzmendi irakasleak egin zituen hastapen haietan kazetari lan nagusiak, Ainhoa Azpiroz hezkuntza kazetariak gidaritza hartu aurretik. Ordutik hainbat irakasle eta kazetari pasa dira *hik hasi*-ren erredakziotik: Arantxa Urbe, Olatz Lasagabaster, Miren Guillo, Itziar Eizagirre, Arantzazu Muñoa, Ainara Gorostitzu...

Euskara bera ardatz izan da 20 urteko ibilbidean: “Gaur normala ikusten dugu heziketa gaiez euskaraz aritzea, baina hasiera hartan euskaraz lanean zebilen jendeak ez zeukan euskaraz sorturiko formazio-tresnarik”, gogoratu du Azpirozek. “Era berean, aldizkaria akuilu izan da euren lana ordura arte gaztelaniaz egiten zuten hainbat profesionalentzat euskaraz egiteko urratsa egin zezaten”.

Euskalduna izateaz gain, lehen editorial hartan agertzen ziren honako ezaugarri hauei eutsi die aldizkariak sortzetik: Nazionala, irakasleena, baterakoaia, irekia eta plurala eta inde-

pendentea. 0. zenbakiak, asmo-deklarazio gisa-edo, 20 urteko ibilbidean sakonduko ziren hainbat gako mahai gainean jarri zituen: Euskal Herriko curriculum baten garrantziaz idatzi zuen Lore Erriondok; 0-3 etapari prestigioa emateko premia nabarmentzen zuen Izaskun Madariagak; Ipar Euskal Herriari leku egiten zitzaion IKAS elkarteari buruzko erreportajea...

Euskararekin batera lurraldetasuna zaintzea lehenetsi du *hik hasi*-k. “Euskal Herri osoko eremuan elkarren berri izateko tresna bat da *hik hasi*. Eremu guztietan eta sare guztietan izan ikastola, eskola publiko eta bestelako ere guztien berri eman izan dugu lekuan lekuko esperientziak jasoz”, azaldu du Azpirozek.

Lasarte-Oriatik Errekalden gaur dituen bulegoetara aldatu zen *hik hasi*-ren erredakzioa. Zuri-beltzeko orrialdeek kolorea hartu zuten, Interneten sartu zen, argazkiak digitalizatu... eta Hik Hasi-k euskal hezkuntzaren eta pedagogia aurrerakoiaren aldeko apustua sendotu zuen.

Pedagogia berria, haurra kontuan hartzen duten pedagogia dibulгатzea izan baita *hik hasi*-ren bigarren zutabea, euskal curriculumaren ondoan. “Hasieratik haurra errespetatuko duen pedagogia, eskola berria zabaltzeko ahalegina egin dugu, bai Montessori, Vigotski, Piaget, Freinet, Gardner, Bruner, Malaguzzi, Waldorf, Piklerren pedagogiaz zabalduz, baina baita ildo horretako eskoletako hemengo esperientziak ezagutaraztea ere”. Kooperazioa, hezkidetzeta, hezkuntza emozionala, afektibitatea, parte hartzea aldiz-



kariaren zutabe izan dira, umearen inizatiba kontuan hartu eta behetiko goira eraikitako eskola berriaren adarrak dira, eta 20 urte hauetan gizarte mailan sendotu eta sakondu egin dira. Hainbat gaitan aitzindari izan da aldizkaria. Bi aipatzekotan curriculumari dago-kiona eta eskola herritarrari dagokiona aipatuko lituzke Auzmendik. “Curriculumarekin aurreratu ginen. Hasieratik argi ikusi genuen beharrezkoa zela Euskal Herri osorako euskal curriculum, eta artean gizartean eztabaida hori egon ez arren denborarekin pisua hartu duen gai bat izan da”.

Egun, euskal hezkuntza-eredu propioa eraikitzen jarraitzeko estrategien berri informatzea du erronka aldizkariak, beti ere haurren eta gazte-txoaren premiak aitortu eta aseko dituen eskola berria oinarri duen hezkuntza propio baten alde.

Hik Hasi hezkuntza egitasmoak al-dizkaria gorpuzten hasi zenean, bigarren zutabea ezarri zuen: formazioarena. Berrikuntza pedagogikoaren aitzindaritzatza Adarrak zeukan Euskal Herrian eta irakasleen prestaketara bideratutako hainbat ikastaro antolatzen zituen, baina gaztelaniaz. Euskal irakasleek beste erreferente bat ere bazuten: Katalunia. Irakasle multzo handiak joan ohi ziren hara udaro formatzera. “Jende berri asko geunden, magisterio bukatu eta zuzenean lanera sartu ginenak, eta sekulako formazio beharra geneukan. Hasiberrian, uztaileko Kataluniara joaten ginen; abuztuaren berriz, Loiolara musika ikastera. Oporren zati handi bat formatzen pasatzen genuen”, gogoratzen du Josi Oiarbide Hik Hasi-ren sortzaile eta kideak.

Eskolak euskaraz ematen zituzten irakasleek formazioa ere euskaraz behar zutelaren iritzia, ikastaroak antolatzeko burutazioekin hasi ziren Hik Hasi-kideak: “Eta topaketa pedagogiko batzuk antolatuko bagenu euskaraz?”. Ikusten baitzuten alor horretan, hots, irakasleentzako euskarazko prestakuntzaren esparruan hutsunea zegoela. “Hik Hasi hasieratik argi izan du beharra dagoen lekuan egingo duela lan, inoiz ez dagoeneko aseta dauden eremuetan”.

Bururatu eta egin. 1996ko maiatzaren *Irakurketa eta Idazketa Konstruktibismoaren ikuspegitik* izeneko jardunaldia antolatu zen Miramarren eta harrera beroa izan zuen: 200 lagunek baino gehiagok hartu zuen parte. Segituan, gainera, jendea Bizkaitik deika hasi zen han ere ikastaroa egiteko eskatuz, eta Loiu erreplikatu zen 160 partaide ingururekin. “Garai hartan bazirudien euskara esparru txiki edo itxietara mugatuta zegoela, jardunaldi

## Euskaraz lan egiteko, euskaraz formatu



publiko eta garrantzitsuetan ez zuela tokirik. Guk, hasieratik horri buelta eman nahi izan genion. ‘Egitekotan goazen ondo egitera’, pentsatu genuen”, azaltzen du Oiarbidek. Handik hurrengo urtean haur-gaztetxoekin Marrakzi ekoizpenaren bilakaeraren inguruko jardunaldia egin zuten Iruñean; 1998ko maiatzean, berriz, baloreen ingurukoa Joxe Azurmendi eta Felix Placerrekin.

Jardunaldi monotematikoaren beharra ikusita, ikastaro bakarraren ordez, gehiago ere antola zitezkeela otu zitzaion. Hala, lehen jardunaldia egin eta handik lau urtera, 2000ko uztailean, lehen Udako Topaketak antolatu ziren. Halaxe aipatzen da 2000. urteko uztailean hartan kaleratutako *bik basi* aldizkariaren 50. zenbakian: “Iritsi dira Hik Hasi Udako Topaketak! 900 pertsona inguru ibiliko gara Donostian hainbat ikastaro, hitzaldi, aurkezpen eta saiotan parte hartzeko. Orain dela urte batzuk Adarra Talde Pedagogikoak anto-

latzen zituen ikastaroek berea eman zuten. Geroztik, hutsune bat nabaritu izan da, eta orain, topaketa hauek hutsune hori betetzera datoz. Gauza berriak ikusi eta ikasteaz gain, elkarrekin egoteko aukera eskainiko digute topaketok”.

10 ikastaro izan ziren lehenengotan: Vigotski; Informatika Haur eta Lehen Hezkuntzan; Internet, aplikazio pedagogikoak; Afektibitatea eta Sexu Hezkuntza; Plastika; Musika, hezkuntzarako programazioa; Musika, hezkuntza berezian; Bigarren Hezkuntza euskararen erabilera nola sustatu; Ingelesa Haur Hezkuntzan; Atxikimenduen inguruan: eskolaratze egoki baten bila; eta Euskaraz aritzeko kantak eta jolasak. Formazio-saioak ematen 47 profesionalak hartu zuten parte. Orditik urtero egin dira Udako Topaketak eta ikasturtean zehar asteburuko jardunaldiak hainbat gairen inguruan.

Hurrengo saltoa Haur Hezkuntzarekin loturikoa izan zen, alor horretan



formazio beharra baitzegoen. “0-3ra begira Reggio Emiliako esperientzia ekarri genuen eta orduan ohartu ginen jendea oldean etorri zela, 300 pertsona. Guk gazteak ginenean sumatu genuen formazio behar berbera ikusi genuen haur hezkuntzako hezitzaileei. Jende gazte mordoa sartu zen haur-eskoletan eta formazio gogo handia zuten”, argitzen du Oiarbidek. Haur-eskoletan lanean ziharduten hezitzaileentzat, udazkeneko asteburuko jardunaldi espezifikoak antolatzen hasi zen Hik Hasi.

Haur-eskoletako profesionalentzat zuzendurikoa izan da Hik Hasi-ren formazio adarraren proposamen berriena ere: “Horrelako beharra bada, zergatik ez dugu urtean zeharreko prestakuntza sakonagoa egiten?”. Eta 0-3 zikloko hezitzaileei bideratutako bi ikasturteko formazioa sortu zen hala. Emmi Pikler, Loriz Malaguzzi eta formazio pertsonala uztartzen ditu kurtsoak. Hezitzaileek 0-3 zikloko haurrekin aritzeko orduan erreferentziatzeko hainbat teoria ezagutu ahalko dituzte, hortik bakoitzak bere ondorioak atera eta praktika pedagogikoa osatu dezan.

### Formazio-hutsuneak betez

Monografikoak dira Hik Hasi-k hezkuntzako profesionalen formazioa bideratu duen beste erreminta bat. Hainbat gai eta edukilantzeko aldizkaria motz gertatzen zela konturatuta, zenbait gai espezifikoaren inguruan monografikoak argitaratzea erabaki zuen. Bidez batez, hainbat jardunaldi eta ikastarotan landutakoak bilduta gertatu dira hala. Guztira 27 monografiko argitaratu dira 20 urtean.

Pedagogiaren arloan Euskal Herri-tik kanpo erreferenteak diren profe-

### Liburu monografikoak:

1. Irakurketa-idazketa
2. Haur-gaztetxoek marrazki ekoizpenaren bilakaera
3. Baloreak irakaskuntzan
4. Atxikimendua
5. Vigotski
6. Afektibitatea eta sexu hezkuntza
7. Kohlberg
8. Hizkuntza idatzia eta ikasleen aniztasuna
9. Etorkinak gure eskolan
10. Antzuolako eskola
11. Howard Gardner
12. Heriotza heziketan
13. Jerome Seymour Bruner
14. Jorge Oteiza
15. Arreta gabezia hiperaktibitatearekin nahastea
16. Estresa irakaskuntzan
17. Pedagogoko sortzaileak teorien iturburu
18. Irakasleen profila
19. Reggio Emilia
20. Konstruktibismoa
21. Bizikidetzaren lantzen
22. Elebitasunetik eleaniztasunera
23. Finlandiako hezkuntza
24. Idazketaren didaktika
25. Ahozko hizkuntza
26. Haur hezkuntza
27. Herri hezitzailea, eskola herri-tarra

### Bestelakoak:

- Euskal Herriko Baliabide

Pedagogikoen Gida 1997az geroztik, bi urtean behin

- Jolasen eta ipuinen bildumak:
  - Haur jolasen abestiak I, II eta III (CDa)
  - Kukuruku (ipuinen CDa)
  - 69 abesti jolasteko (CDa)
- DVDak:
  - Zatoz jolastera (DVDa)
  - Jolasen altxorra (DVDa)
  - Ilargiaren sekretua (DVDa)
  - Begiradaren heziketa (DVDa + liburua)
- Musika tresnetarako metodoak:
  - Txirulaz liburu eta CDa
  - Gitarraz
  - Eskusoinuaz
  - Ostadarraren hotsaz -Aschero metodoa
  - Pianoaz
- Liburuak:
  - Ilunetik Argira, Elbira Zipitria (egileak: ABASOLO, Resu; LOPEZ DE MUNIAIN Juana; URBE Arantxa)
  - Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako (eg.: Joseba Sarrionandia)
  - Gazteak eta euskara

### Bidaia pedagogikoak

- Reggio Emilia, Italia
- Habana, Kuba
- Katalunia
- Finlandia
- Estonia
- Herbeereak

sionalak ekartzeaz gainera, atzerriko esperientziak bertatik bertara ezagutzeko bidaia pedagogikoak ere antolatu izan ditu Hik Hasik. Besteak beste, Italiako Reggio Emiliara –150 lagunek

baino gehiagok hartu zuten parte-, Finlandiara, Herbeeretara, Estoniara, Herrialde Katalanetara, Kubara... “Formaziorako bide polita da, nahiz eta batzuetan finantziarioa zaila izan”.

# angel perez gomez



## ELKARRIZKETA

Didaktikako katedraduna Malagako Unibertsitatean

“Dena ikas daiteke, bizitza osoan zehar ikasteko motibatuta bagaude eta ikasteko baldintza egokiak baditugu”

Angel Perez Gomez (Valladolid, Espainia, 1949) Bigarren Hezkuntzako irakasle lanetan hasi zen 1971n, eta ordudunik, irakasle eta ikerlari lanak uztartu ditu. Pedagogian doktore eta Didaktikako katedraduna da, eta hainbat erakunderen aholkulari izan da antolaketa, ebaluazio eta irakasleen prestakuntza gaitan.

Huheziko Ikaskide Taldeen Jardunaldietara etorri da, eta bertan, besteak beste, oinarriko konpetentziek egungo hezkuntza-erronkei erantzuteko hartzen duten garrantziaz jardun zuen, eta baita modu oinarrikoagoan eskolak gaur egun dituen erronkez ere, gizartea aldatu den neurrian eskolaren erronka ere aldatu egin dela bai baitio: “Uste dut maisu-maistrak eta unibertsitateetako irakasleak ez dira guztiz jabetu gertatu den aldaketa erradikalaz, hau da, gure eguneroko praktikak funtsik gabe uzten dituen aldaketaz”.



**Eskola-sistemaren oinarria ezarri zenetik gaur egunera, asko aldatu da gizarte-eredua; gizarteak izan duen aldaketaren parekoa bizi izan du eskolak?**

Aro digitalean bizi gara, eta gure ingurunea eta zirkunstantziak ikaragarri aldatu dira oso epe laburrean. Eskola, ordea, ez. Zer egin dezakegu egoera horretan? Lehenik eta behin, gaur egungo gure mundua definitzen duten gakoak eta ezaugarriak zein diren ulertu behar dugu; uste dut maisu-maistrak eta unibertsitateetako irakasleak ez direla guztiz jabetu gertatu den aldaketa erradikalaz, hau da, gure eguneroko praktikak funtsik gabe uzten dituen aldaketaz. Noraezean dabilen gizarte batean bizi gara, aldaketa, ziurgabetasun eta desberdinkeria handiko gizarte batean. Eta egoera hori izango dugu bidelagun denbora luzean. Ezaugarri horiek berriak dira, gizateriak sekula ez baitu horrelako egoerarik bizi izan; informazio-ugaritasuna dugu, eta, aldi berean, zalantza beteta gaude. Historian lehen aldiz, informazio-betekada dugu, eta gainezka egiten digu alde guzti-etatik.

Lehen, informazio bila joaten ginen lekua zen eskola; gaur egun, ez da horrela. Orain gutxi arte, informazio-eskasia izan du gizakiak, herritar gehienak informazio-desertu batean bizi baitziren eta eskola oasi bat baitzen; han jasotzen genuen informazioa, eta informazio

horrek desertuko zeharkaldi guztirako (gure bizitza osorako) balio behar zigun. Gaur egungo metafora beste bat da: gaur egun, urakan baten erdian gaude, eta eskolak ezin du, bada, oasi izan; aitzitik, urakan horretatik babestuko gaituen espazio bat izan behar du, balio duena eta ez duena bereizten lagunduko digun espazio bat, kokatzen, pentsatzen, aukeratzen, kritikatzeko... lagunduko diguna.

**Metaforatik irtenda, zer egin behar du eskolak?**

Orain arte egin duen horrekin alderatuta, guztiz bestelako zeregina du: merezi duena eta ez duena bereizteko irizpideak eraikitzen lagundu behar du.

Aldaketa zorabiagarria da, erradikalaketa da, azeleratua da, eta hauskortasunaren sententzia eragiten du, historiaren azkartzea eta geure nortasunaren ahultzea balekartza bezala. Nola bizi genezake ziurgabetasun hori? Gizakiak, historia osoan, ziurgabetasun erabatekoa bizi izan du, baina ezkutatu egin du, sinesmenen eta ideologiaren bidez, belaunaldiz belaunaldi balio eta instituzio berdinak, pentsatzeko, sentitzeko eta ekiteko modu berdinak transmitituz, ziurtasuna sortuz. Horrek ez du balio jada, eta, orain, ziurgabetasunari aurre egiten irakatsi behar diegu haurrei, gazteei eta helduei.

Haurrak prestatzen eta hezten ari garenok ez dakigu haur horiek zer lanbidetan arituko diren, ez zer erreminta erabiliko dituzten, ez zer teknika, zer abilezia eta estrategia garatuko dituzten ere. Horregatik guztiagatik, ezin dugu jakintza konkretuen transmisioaz arduratu, funtsezko irizpideen transmisioaz arduratu behar dugu.

**Ziurgabetasunaz gain, desberdinkeria aipatu duzu. Historian zehar, beti egon da desberdinkeria. Hori ere areagotu**

# angel perez gomez

E

“**Eskolak, gaur egun, informazio-urakan batetik babestuko gaituen espazio bat izan behar du, balio duena eta ez duena bereizten lagunduko digun espazio bat, kokatzen, pentsatzen, aukeratzen, kritikatzeko... lagunduko diguna**”

“**Beste ilustrazio bat behar da eskolarentzat; hori da nire jarrera. Bizi izan dugun eta kopiatzen dugun eskola-aparatua garbitu egin behar da**”

## egin da?

Desberdinkeria gizakiaren bide-lagun izan da historia osoan, eta, Bigarren Mundu Gerraren ondoren eta sozialdemokrazia gutxi-asko ideologia unibertsal gisa nagusitu zenean, bazirudien banaketa berdintsuagorako joera zabaldu zela European eta AEBn; baina duela hamarkada batzuetatik hona, Mendebaldeko herrialdeetan desberdinkeria hazten ari dela ikusten ari gara. Kapitalismo finantzarioa desberdinkeriaz elikatzen da, eta ustez betiko konkistatuak genituen eskubideen deuseztatzeaz.

## Eta zer egin dezake eskolak egoera horren aurrean?

Nik uste dut eskola-aparatua zaharkituta dagoela. Errotik berritu behar da. Naturalismotik industrializaziora igarotzeko, oso positiboa izan zen eskola-aparatua, garai haietan gizartearen erdian zegoen obskurantismoa gainditzeko balio izan baitzuen. Baina, garaiko seme-alabak ziren neurrian, haiek ere akatsak izan zituzten: Descartesen akatsa egin zuten, eta horixe da Ilustrazioaren giltzarria, guztiok elikatu duguna, guztiok Descartesen akatsean heziak izan baikara. Hau da: giza adimena arrazionaltasun logiko eta diskurtsibora mugatu zen; *cogito ergo sum* (pentsatzen dut; beraz, banaiz) esan zuen Descartesek, eta azaldu zuen dena arrazoimen logikorako gaitasunaren arabera ulertu behar dela. Horrek min handia egin duen dualismo manikeo bat bultzatu zuen gerora: burua eta gorputza desberdintzea; arrazoimena eta emozioak; kontzientea eta inkontzientea; naturazientziak eta gizarte-zientziak; eskulana eta lan intelektuala bereiztea ekarri zuen. Horren ondorioz, prestakuntza eta eskola-aparatua arrazionalizazio lineal, kontziente, objektibo eta neutral horretara soilik bideratu behar zen.

Era horretan, beste instantzia batzuen esku utzi zen emozioen, gaitasunen, balioen eta sinesmenen garapena. Eskolan, horrela sartu ziren ezagutzen ditugun diziplinazko curriculum eta denboraren eta espazioaren banaketa; horixe ezagutzen dugu, oinordetzan jaso dugu, eta erreproduzitzen jarraitzen dugu, nahiz eta XXI. mendean guztiz antzua eta baliogabea izan diziplinatan banaturiko curriculum hierarkizatu bat, garai industrialeko beharren arabera sailkatua dagoena. Gaur egun, Werthen lege berriak ere humanitateak eta arteak erabat baztertzen ditu hierarkia horretan, gizakiarentzako horren garrantzitsuak diren alorrak alde batera utzita. Datuen, gertaeren, informazioen, formula mekanikoen, aplikazioen eta sailkapenen kopiaketa huts gisa hartzen den ikasketak irizpide-, prozedura- eta ebaluazio-estrategia bat dakar, estrategia metodologiko eta pedagogiko unibertsal bat; uniformizazioa, edo, beste era batera esanda, neurri bakarreko eskola, denei dena erritmo berdinean, dokumentu eta material berdinekin irakatsiko dien eskola, eta azterketa berdinekin, proba objektibo berdinekin ebaluatuko dituena. Uniformizazio didaktiko hori ezkerak eta eskuinak babestu zuten, arrazoi desberdinengatik: batzuek gizateriaren kulturaren oinarria datuak ikastea eta erreproduzitzea zela uste zutelako, eta besteek, ezkerak, aukera berdintasunaren berme bat zela uste zutelako. Baina hori ez da horrela. Eskolan sartzean jatorri sozial, kultural, ekonomiko edota politikoaren arabera desberdinak diren pertsonak, 16 urterekin irteten direnean, eurenak balira bezala onartzen dituzte desberdinkeria horiek. Ezin dira berdin hartu jatorrian desberdintasunak dituzten haurrak. Argi utzi du hori PISAk:

haurren errendimendu akademikoa ondoen aurreikusten duen aldagaia familien maila soziokulturala da; maila altua bada, errendimendua altuagoa da; baxua bada, baxuagoa. Eskola ez da gai izan oinarrian eta jatorrian dauden desberdintasunak konpentsatzeko.

### Zergatik?

Neurri bakarraren metodologiak, hau da, uniformizazio didaktikoak, ez dakarrelako aukera-berdintasunik, nire ustez; kontrara, oinarriko desberdintasun sozioekonomikoak desberdintasun pertsonal gisa zilegitzen ditu eskolak.

Beste ilustrazio bat behar da eskolarentzat, hori da nire jarrera. Bizi izan dugun eta kopiatzen eta birsortzen dugun eskola-aparatua garbitu behar da. Besteak beste, testuingurua aldatu delako eta giza garapenari buruz daukagun jakintza aldatu delako, mundu ekonomikoaren eskaerak aldatu egin dira. Neurozientzia izan da giza garapenaz dugun jakinduria aldatzeko eragile garrantzitsuetarikoa.

### Neurozientziaren zer ekarpen izan beharko genuke kontuan, eskola berritzeko garaian?

Neurozientziak ez ditu 30 urte baino gehiago, eta, azken hamar urteotan, egunero ari gara gizakiaren ikasketa-prozesuaren funtzionamenduari buruzko aurkikuntzak egiten. Lau aurkikuntza garrantzitsuk hankaz gora jarri dute ikasketaz genekiena. Lehena **garunaren plastikotasun ikaragarria** da. Erredukzionismo biologistaren arabera hezi eta prestatu gaituztenok uste genuenaren kontrara, ez gara jaiotzen gure bizitza baldintzatuko duten zenbait muga biologikorekin. Neurozientziak kontrakoa erakutsi du: organo batekin jaiotzen gara, garunarekin, baina berau ikasteko programatuta dago. Hainbestekoa da garunaren plastikotasuna, non bizitza osoan



zizelkatzen baita. Eta gure garuna zizelkatzen duena ez da genetika, lehen uste zen bezala; aitzitik, haurrak egiten dituen ekintzek zizelkatuko dute, eta ekintza horiek dira, beraz, gure garunean zirkuitu batzuk edo besteak eraikitzeko ardura dutenak. Garuna ibilian egiten den bide bat bezalakoa da; baso batean, bidexka bat egiten da ibilian-ibilian; bide bat gero, errepide bat ondoren, autobide bat..., eta, bidea zenbat eta hobea izan, azkarrago gurutzatuko dugu. Egiten dituen ekintzen arabera eta ekintza horiek duten zentzuaren arabera garatzen du haurrak ulertzeko, konprenitzeko, erabakitze eta ekiteko gaitasuna. Ekintzek eta errepikapenak eraginkortasuna dakarte, eta ekintza horien balioak ematen die zentzua. Ekintzen zentzuak dauka, beraz, benetako garrantzia. Hau da, gure filosofia-pedagogia datuak eta formulak buruz ikastean eta errepikatzean oinarritzen badugu, haurrak errepikatze gaitasuna garatuko du; baina zirkuitu neuronal horiek ez diote balio izango pentsatzeko, hipotesiak egiteko, ebaluatze, sortzeko eta harremanak ezartzeko gaitasuna garatzeko. Trebezia horiek garatzea nahi badugu, gisa horretako ekintzak egin beharko dituzte haurrak.

Neurozientziak optimismo pedagogikoa ekarri du. Zelula ametatik

zelula berriak sortzen dira bizitza osoan, haurtzaroan eta nerabezaroan intentsitate handiagoz, baina gaztaroan eta helduaroan ere jarritzen du horrek. Dena ikas daiteke, beraz, bizitza osoan zehar ikasteko motibatuta bagaude eta ikasteko baldintza egokiak badiugu. Hori ere neurozientziak erakutsi du.

Giltzarri izan den beste aurkikuntza bat inkontzientearen garrantzia da. Hautemateko, interpretatzeko, erabakiak hartzeko eta jarduteko mekanismoen % 80-90 kontzientziaren azpitik dago. Ahalik eta modu ekonomiko eta eraginkorrean ikasteko eta ekiteko programatuta dago gure garuna. Gure bizitzan erabiltzen ditugun baliabide gehienak inkontzienteak badira, zer egiten dugu, hortaz, eskolan teoria kontzienteen gainean soilik lan egiten?

Emozioen garrantzia ere erakutsi du neurozientziak. Emozioak amigdalari, talamoari eta hipotalamoari daude, narrasti-garunaren inguruan —narrastien garunaren gisakoa, ugaztunek eta, gero, gizakiak beren egin zutena—. Erreakzio bat eragiteko lehen osagaia emozioak dira, lehen-lehenik emozionalki erantzuten baitugu kanpoko estimuluaren aurrean. Beraz, zentzugabea da arrazionaltasun kontzientearen eta erreakzio emozional inkontzientearen artean Descartesek egindako

# angel perez gomez

E

“Oso garrantzitsua da eskolan elkarrekin pentsatzeko espazioak eta denborak edukitzea, baina baita geure buruarekin egoteko, meditatzeo, hausnartzeko espazioak eta denborak edukitzea ere

“Indarkeriak ez du lekurik izan behar eskolan, ezin da inor irrigarri utzi, denok ari gara ikasten, eta, ikasteko prozesuan, huts egiteko aukera ezaugarri garrantzitsua da



bereizketa, gure jakintza guztiak ñabardura emozionala baitu. Kontrara, bada metafora bat kalte handia egin duena: garunaren funtzionamendua ordenagailu batekin konparatu nahi izan da, eta ordenagailua, neutroa, hotza, objektiboa eta mugagabea da; baina garuna ez da hala, bere lehen egitekoa norbanakoaren zorientasuna eta beharrak, ilusioak eta bizi-proiektuak asetzea baita. Guk gizakiekin lan egiten dugu, ez ordenagailuekin, eta kasu egin behar diogu bakan-tasun emozionalari.

**Neurozientziaren ekarpenak kontuan izanik, ikasketa nolakoa dela esango zenuke?**

Ikasketa, niretzat, baliabideak lortzeko prozesu bat da, ulertzeko eta jarduteko baliabideak eskuratzeko prozesua.

**Zein dira baliabide horiek, eta nola eskuratzen dira?**

Baliabideak eraikitzeo baliagarriak diren bost bide aurkitu ditu psikologiak. Zoritzarrez, bide horietako bat boladan jartzen denean, besteak baztertu egiten dira, eta gizakia bide horren arabera bakarrik deskribatzen da.

Lehena behaketan, imitazioan eta kopiaketan datza. Ikasteko bide

hori giltzarria da haurtzaroan, eta ez da desagertzen bizitza osoan.

Bigarrena esperimendazioaren bidea da. Gizakiak ez ditu baliabideak imitatuz eta kopiaturuz soilik sortzen, esperimendaturuz eta aurkikuntzak eginez ere sortzen ditu, jolastearen eta esperimendatzearen plazeretatik soilik. Esperimendazioaren bidez sortzen diren baliabide horiekin, autonomia handia garatzen da. Piaget izan zen planteamendu horren ikur nagusia.

Komunikazioa da hirugarren bidea. Gai gara komunikatzen diguten hori ikasteko; gure arbasoek edo garai-kideek egindako aurkikuntzak komunikatzen dizkigutelako sortzen ditugu baliabideak. Psikologia konstruktibista eta soziokulturala –Vigotski eta Bruner, besteak beste– bide horretan oinarritzen ziren. Vigotskiren eta Piageten arteko desadostasun handiena puntu horretan dago, Vigotskik baitzion haurrak ez duela soilik esperimendatzen, besteak aurkitu duten hori bere egiten ari denez uneoro. Eta hori are indartsuagoa da pantailen garai honetan, haurra uneoro ari baita jasotzen denboran eta espazioan urrun dauden informazio eta aurkikuntzak. Konexionismoa konstruktibismoaren bertsio gaurkotua da, eta harrema-

nak edukiak baino garrantzitsua-  
goak direla planteatzen du, harre-  
manak dituenak mundu osoko  
edukiak baitauzka eskura. Norba-  
nakoak garatzen dituen sareen  
kalitatearen arabera, eduki hobeak  
edo okerragoak iritsiko zaizkio.

Mobilizazio kontzientea da beste  
bide bat. Mendebaldean, oraindik  
oso gutxi erabiltzen da bide hori,  
baina horretan oinarritzen da  
ekialdeko filosofia osoa. Interpre-  
tazio- eta ekintza-baliabideak  
sortzen ditugu, inguratzen gaituen  
horretatik guztitik bakartuta, geure  
barne-munduan bildurik, zer  
baliabide dauzkagun jabetuz,  
zerekin gauden gustura eta zerekin  
ez hausnartuz, zer hobetu dezake-  
gun ikusiz... Horrek geure burua  
ulertzea esan nahi du, zer aldatu  
nahi dugun eta zer alda dezakegun  
ikustea. Gorputzeko beste gihar  
batzuk entrenatzen ditugun bezala,  
gure buruak ere entrena ditzakegu,  
gaitasunetan, emozioetan eta  
trebezietan. Oso garrantzitsua da  
eskolan elkarrekin pentsatzeko  
espazioak eta denborak edukitzea,  
baina baita geure buruarekin  
egoteko, meditatzeke, hausnartze-  
ko eta geure egitura eta ohiturak  
hobetzeko espazioak eta denborak  
edukitzea ere.

Inkontzientearen mobilizazioa da  
bosgarren bidea. Gure konfort-  
lurraldetik urruntzen garenean,  
inkontzientea mugiarazten dugu.  
Hau da, inkontzientea dago auto-  
matikoki ondo funtzionatzen duen  
horren guztiaren atzean, baina,  
lurralde horretatik urruntzen gare-  
nean, inkontzientea asaldatu egiten  
da. Inkontzientearen mobilizazioa  
funtsezkoa da ohitura kontziente  
eskasak edo kaltegarriak aldatzeko.  
Ekintza artistiko guztiek —lite-  
raturak, dantzak, musikak, psiko-  
motrizitateak, plastikak...— gure  
inkontzientea mugiarazten dute.

Ikasketa modu horietan zehar ibiliz  
eraikitzen dira bideak eta

baliabideak. Pedagogian, ezin gara  
izan sektarioak, ezin dugu bide bat  
hartu eta bestea alboratu, bakoitzak  
bere ahuldadeak eta indarguneak  
baititu. Holistikoak eta eklektikoak  
izan behar dugu, haur bakoitzaren  
potentzialtasun guztia garatzeko.

### **Eta planteatzen duzun hori uztar daiteke ataletan, gaien arabera eta hainbat denbora-epetan bereizitako curriculum batekin?**

Curriculum horren bidez, haurrak  
mekanikoki eta gehienetan interesik  
gabe eta ulertu gabe ikas dezan  
bultzatzen dugu askotan, haurra gai  
baita ulertu gabe mekanikoki ikasi  
eta adierazteko. Haatik, aipatzen  
duzun ikasketa-eredu horrekin, ez  
du behaketa-, interpretazio-,  
erabakitze- eta ekintza-egoera  
berriei eta konplikatuei aurre  
egiteko baliabiderik garatuko.

Konpetentziek —edo gaitasunek  
edo pentsamendu praktikoak  
(teoria eta praktika uztartzen  
dituena), osagarriak diren hiru  
izendapen baitira niretzat —  
ulermen- eta ekintza-baliabideak  
besarkatzen dituzte, eta gure  
estrategia metodologikoez gaitasun  
guztien garapena sustatu behar  
dute. Gaur egun, ez da eskolan  
soilik prestatzen eta hezten. Gizakia  
leku guztietan hezten da, familian,  
telebistaren aurrean, kalean, lagun  
arte, eskolan..., baina nor da  
baliabide horiek nola eraiki  
daitezkeen ondoen esan dezakeen  
espezialista? Politikaria, kazetaria...?  
Ez, hezitzailea da besteei baliabide  
guztiak garatzen lagundu behar  
diena.

### **Nola lagundu diezaieke irakasleak ikasleei eta kideei euren baliabide guztiak garatzen?**

Ikerketa zientifikoak, sorkuntza  
artistikoak eta produkzio teknolo-  
gikoak egiten duten prozesuari  
jarraituz: ulertuz eta diagnostikatuz,  
garatuz, eginez eta ebaluatuz.

Lehenik eta behin, ulertu eta  
diagnostikatu egin behar dugu  
aurrean duguna. Haurrak aurrean  
duten errealitateari behatzeko eta  
errealitate hori diagnostikatzeko,  
egiaztatzeke, konparatzeko, harre-  
manak ezartzeko, eztabaidatzeko,  
antolatzeke eta zatikatzeko moduan  
kokatu behar ditugu ikasketa-  
prozesuan; eta, horren ondoren,  
euren mailako gaitasunak garatuko  
dituzte. Horrela, ulertzen eta diag-  
nostikatzen ikasiko dute, eta, beraz,  
ulermenerako eta diagnostikorako  
zirkuitu neuronalak engranatuko  
dituzte.

Errealitatea aurkitzen eta aztertzen  
dugu, arazoak zein diren ikusten  
dugu, eta errealitate horretan nola  
esku hartu behar dugun aztertzen  
dugu, diseinuaren eta planifikazio-  
aren garaian; zertan eragin nahi  
dugun diseinatzen eta planifikatzen  
dugu. Diseinatzeak balioak eta  
sinesmenak zalantzan jartzea dakar,  
zer egin nahi dugun argi izatea...  
Eta, eskolan, noiz irakasten diegu  
haurrei balioak eta sinesmenak  
zalantzan jartzen?

Uleratu eta diseinatu egin behar da,  
eta egin ere bai; garrantzitsuak dira  
garapena eta ekintza. Askotan, gure  
ulermena eta diseinua pikutara  
botatzen ditugu ekiteko garaian.  
Ekintzan, emozioek eta gaitasunek  
parte hartzen dute, gaitasun  
tekniko, psikomotor, artistiko eta  
sozialek. Zenbat denbora eskain-  
tzen diogu eskolan gaitasunak  
garatzeari? Ebaluazioak eta  
birformulatzeko hausnarketarekin  
dute zerikusia, prozesua aztertze-  
arekin, ahulguneak eta indarguneak  
zein diren ikustearekin... “Non huts  
egin dugu: ulermenean, diagnos-  
tikoan, ekintzan?”

### **Eta ezaugarri horien arabera ikasketa-prozesu horrek zer-nolako gaitasunak bereganatzen laguntzen die ikasleei?**

Gizarte garen neurrian, eztabaida

“Oso garrantzitsua da txikitatik bestea ulertzeko gaitasuna, enpatia, garatzea, bestearen lekuan jartzea bestearen eta norberaren ahulguneak eta indarguneak ezagutzeko

“Ikasteko balio duen ebaluazioa behar dugu, ez neurtzeko eta sailkatzeko balio duen ebaluazioa

soziala, pedagogikoa, zientifikoa eta politikoa egin behar dugu, baliotsu deritzegun gaitasunen inguruan. Nire ustez, ziurgabetasun- eta aldaketa-garai honetan, hainbat gaitasun garatu behar ditugu modu holistikoan, haur-hezkuntzatik unibertsitatera arte: adimen zientifikoa, adimen sortzailea, adimen etikoa, adimen pertsonala, kritikoa, etab.

Jakintza modu diziplinarioan, kritikoa eta sortzailean erabiltzeko gaitasuna da **adimen zientifikoa**. Modu teoriko edo mekanikoan ez kopiatzea esan nahi du, analisiaren, diagnostikoaren, garapenaren eta ekintzaren bidez lan egitea arazoan aurrean, betiere jakinda garaian garaiko jarrera sozial eta erlatibo bat dela giza jakintza, eta ez dagoela egia absoluturik. Era horretan uler ditzakegu beste garai eta kultura batzuk.

**Adimen sortzailea** oso garrantzitsua da: dakiguna interpretatuz ikasten dugu, jakintza analogikoa baita, eta dakigunaren gainean eraikitzen da jakintza berria. XXI. mendeko jakintzaren lehentasunetako bat eskemak, ereduak eta buru-mapak eraikitzen laguntzea da, mundu fisiko, kimiko, sozial eta politikoa nondik nora ibili jakin dezaten. XVII. eta XVIII. mendeetan, datuetan zegoen irakaskuntzaren giltzarria, eta datuen gainean eraikitzen ziren buru-mapak, datuak buruan ez baizeuden, ez baitzeuden beste inon. Gaur egun, datuak saguaren bidez edo sakelako telefonoaren bidez eskuratzen ditugu, eta buru-mapak, eskemak eta ereduak ezin ditugu datuetan oinarritu. PISAko ebaluazioek, adibidez, ez dute buruz ikasitako daturik eskatzen; buru-mapak, eskemak eta ereduak behar izango dituzten problemaren soluzioak eskatzen dituzte. PISAren perbertsioa emaitzen araberrako rankingak eraikitzea da, horrek ez baitio kooperazioari laguntzen;

gainera, matematika, naturaren zientziak, eta irakurketa eta idazketa soilik ebaluatzen ditu, giza erakuntzarako horren aberasgarriak diren beste gai batzuk bazter utzita. Adimen zientifikoa bezain garrantzitsua da **adimen etikoa**. Mundu plural eta global batean bizi gara, eta beste ideologia, kultura, hizkuntza, hizkera eta egitura sozial batzuekin batera bizitzera eta aritzera behartuta gaude; kultura-aniztasunarekin bizitzera eta aritzera behartuta gaude. Oso garrantzitsua da txikitatik bestea ulertzeko gaitasuna, enpatia, garatzea, bestearen lekuan jartzea, bestearen eta norberaren ahulguneak eta indarguneak ezagutzeko. Aniztasuna ospatu behar dugu, hau da, gaur arte eskoletan egin den neurri bakarraren ereduaren justu kontrakoa bultzatu behar dugu, eta desberdinkeria amaitzea izan behar dugu lehenetasun. Desadostasunak errespetatzen ikasi behar dugu, eskolan demokrazia biziz, baina ez maila teorikoan, baizik biziz, demokrazia biziz, informazioa modu gardenean zabalduz, besteen iritziak errespetatuz. Indarkeriak ez du lekurik izan behar eskolan, ezin da inor irrigarri utzi, denok ari gara ikasten, eta, ikasteko prozesuan, huts egiteko eta akatsak egiteko aukera ezaugarri garrantzitsua da. Oinarritik eta oinarritzko demokrazia praktikatu behar dugu eskolan, klima hori sortu behar dugu, gure demokraziaren ordezkari gorenak egiten ez duten hori, hain justu. Gutako bakoitzak adimen etikoa, politikoa eta soziala eraiki behar dugu, eta ikasleei ere adimen etiko, politiko eta soziala eraikitzen lagundu behar diegu. Adimen etiko, politiko eta soziala ez da hautazko atributu bat; eragile etiko, politiko eta sozialak gara ezinbestean, eta beharrezkoa da gure bizitza arautuko duten arauak guztiok oso txikitatik eraikitzea eta betetzea,



beste batzuek kanpotik egin ez dezaten.

**Adimen pertsonalak** bizitza osoan ikasteko gaitasunari egiten dio erreferentzia. Eta gaitasun hori XXI. mendearen bereizgarri bat da. “Ezagutu zeure burua”, esan nahi du, batetik; bigarrenik, “estimatu zeure burua”, eta, hirugarrenik, “arautu zeure burua”. Haurrei euren bizitzaren patua euren gain har dezaten lagundu behar diegu, eta horrek euren burua ezagutzea, estimatzea eta arautzea dakar. Eta nork lagun diezaieke modu sistematikoan? Guk, hezitzaileok. Irakaskuntza pertsonalizatua bultzatu behar dugu. Autonomiak askatasuna eta ardura esan nahi du, ez badago askatasunik ez baitago ardurarik. Haurrek aukeratzeko gaitasuna izan behar dute, aukeratu duten horren ardura izan dezaten gero. Horrek curriculumaren hautazkotasuna esan nahi du: oinarriko erremintak bai, behar dituzte, baina guztiek ez daukate gauza berberak ikasi beharrik.

### **Zer funtzio izan behar luke, zure ustez, XXI. mendeko hezitzaileak?**

Nire iritziz, hezitzaileak pertsonen tutoreak dira. Eta, pertsonen tutore diren neurrian, haien funtzio nagusia haurrak modu progresibo eta kontzientean, pixkanaka, euren bizi-proiektuak eraikitzen joan daitezen laguntzea da; eta funtzio horrek dimentsio akademikoa eta profesionala ditu, bai, baina baita pertsonala eta soziala ere. Euren bizi-proiektua eraikitzen joan daitezen, bidelagun izan behar gaituzte.

Bizitzera dator haurra eskolara; bizitzera, egitera eta lan egitera. Ez doa modu pasibo batean apunteak hartzera. Egitera doa. Baina ez egiteagatik egitera; zentzua duten ekintzak behar ditu haurrak, lehen aipatu ditugun fase horiekin guztiekin zerikusia duten ekintzak,



mundua eta norberak bere burua aurkitzearekin lotura duten ekintzak. Oso garrantzitsua da eskolan testuinguruak sortzea eta haurri espazioa eta denbora lagatzea, harreman sozial horiek eta testuinguru material horiek bizi ditzan, testuinguru horietan sortuko baititu haurrak baliabiderik onenak. Beraz, testuinguruak sortzen espezializatu behar dugu irakasleok, aurrez aurreko testuinguruak nahiz testuinguru birtualak, gaur egun ez baitut eskola espazio birtualik gabe ulertzen.

Irakasleak jakiteko, ulertzeko eta ikasten laguntzeko grina izan eta azaldu behar du; ikasten laguntzeko grinarik ez badaukagu, utz dezagun gure lana eta egin dezagun beste zerbait.

### **Eta nola ebaluatuko zenuke bizi-proiektuaren garapen hori?**

Ikasteko balio duen ebaluazioa behar dugu, ez neurtzeko eta sailkatzeko balio duen ebaluazioa. Kalifikazioa helburu duen ebaluazioak ez du balio pedagogikoki;

beste gauza batzuetarako bakarrik balio du. Haurrak bere burua ezagut dezan laguntzen duen ebaluazioak haurren indarguneak eta ahulguneak bistaratuko dituen txostena izan behar du. Kontu handia izan behar dugu ebaluazioarekin, diseinuarekin koherentea ez bada proiektu pedagogiko osoa pikutara bota baitezake.

### **Zergatik kostatzen zaigu proposatzen duzun zentzu horretan lan egitea?**

Irakaslearen lana oztopatzen duten baldintza ugari daude: tradizioaren zama handia, adibidez; eredu zaharkitu hori sendotzen jarraitzeko hezi gaituzte gaur egungo irakasle asko. Bestetik, politikariek ez dakite ezer hezkuntzaz.

Eredugarri izango diren berrikuntza-espereziak sortu behar ditugu lehendabizi. Balio duela, merezi duela, eraginkorra dela eta inbertsio bat dela frogatuko duten ereduak sortu behar ditugu, unibertsitateak eta administrazioak bultzatuko dituzten ereduak. Aldaketak, nire ustez, irakasle-eskoletan hasi behar du. Beste norabide batean lan egingo duten irakasleak hezi behar dira, eta lehendik daudenak birziklatu egin behar dira.

Baina hori guztia ez da posible izango, irakasleek pentsamendua aldatu ezean. Lan-ildo hori onartzen eta bultzatzen duten irakasleek talde txikitik lan egin behar dute, eskolak ere norabide horretan jar daitezen eta eskola bakoitzean berrikuntza-prozesuak abia ditzaten.

### **Administrazioa aipatu duzu, baina Werten erreformak ez dio erraztasun handirik jartzen zuk proposatzen duzun hezkuntza-ereduari.**

Administrazioak traba asko jarriagatik ere, beti egongo dira askatasunerako zirrikituak, irakasleok elkartu eta lan egiteko antola gaitzen. Legeak ez digu taldetan antolatzea eta proiektuak egitea eragotziko.



# LOMCEri ez, Euskal Herrian gure hezkuntza eraiki

## Eskolak komunitatearena izaten jarrai dezake, eta ez zuzendariarena

Iragan ikasturte osoa Wertek lege erreformaz hizketan pasa ondoren, irailean kurtsoa hastearekin batera, Nafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako ikastetxeetan ezarri da LOMCE, Lehen Hezkuntzako lehen, hirugarren eta bosgarren mailetan —hurrengo ikasturtean ziklo osoa aldaturik egongo litzateke—. Ateak zabaltzean, alabaina, ez irakasleek, zuzendaritza-taldeek, ikasleek eta ezta familiek ere ez zekiten zertan nabarmenduko zen aldaketa.

Informazioa tantaka joan zaie iristen ikastetxeei, orain ikasgai bati buruzko orientabideak, gero akordio baten albisteak...

Uztailean argitaratu zuen Espainiako Gobernuak LOMCEren lege ebazpena, baina tokian tokiko administrazioek ez dute irailerako lege hori aplikatzeko edo saihesteko dekreturik idatzi, denbora falta argudiatuta.

Funtsean aldaketa handirik ekarri gabe inplantatu da Espainiako Hezkuntza ministroak diseinaturiko lege organikoa. Metodologian, curriculumean, antolaketan eta hezkuntzaren oinarritzko markoan aldaketak leudeke, baina ez dirudi ikasturte honetan ikastetxeek aldaketa nabarmenik bizi izango dutenik, curriculumari dagokionez,

adibidez, Iruñeko eta Gasteizeko gobernuek ikasturte honetan ikasmaterial berririk ez argitaratzea erabaki dute, beraz, aldaketarik ez da izango.

Antolaketan ikusteko dago aldaketarik egongo den. Puntu kezkarrienetakoa eskola kontseiluei zegokiona da, erabakitze ahalmena murriztu nahi baitie LOMCEk: organu iritzi emaila izatera pasarazi nahi zuen Wertek, hau da, ikastetxeko proiektua onartzeko ahalmena kendu nahi dio eskola kontseiluari, eta egiteko hori zuzendaritzaren esku utzi. Eskola kontseiluan zuzendariak, irakasleak, udal ordazkariak, eta familiek parte hartzen dute, eta orain arte eskolari buruzko dokumentu garrantzitsuenak gune horretan eztabaidatu eta onartzen ziren. Haatik, aldaketa honek ez die Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikastetxeei eragingo, irailaren 29ko EAeko Aldizkari Ofizialean argitaratu denez, Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak akordio bat erdietsi baitute. Akordio horren arabera, hiru lurralde horietan Jaurlaritzak izango du zuzendaritzaren eta eskola kontseiluaren arteko harremanak antolatzeko eskumena: “Hezkuntza



administrazioei dagokie ikastetxe publikoen kudeaketa-eredua zehaztea eta zuzendaritzaren eta partaidetzarako kide anitzeko organoen arteko harremanak antolatzeko”. Cristina Uriartek ikasturte hasieran aurreratu zuen eskola kontseiluen orain arteko izaera mantentzearen aldekoa zela, beraz, xede horren eta akordioaren arabera, kontseiluen erabakimenari eutsi ahal izango dio Jaurlaritzak. Ikusteko dago Nafarroan zer gertatuko den. Izan ere, Josu Erkorekak eta Cristobal Montorok sinaturiko akordioak “hezkuntza administrazioei” aitortzen die euren burua antolatzeko ahalmena; Nafarroako Hezkuntza kontseilari Jose Iribasek, ordea, LOMCEren aldekotasan osoa erakutsi izan du. Alta bada, Nafarroako ikastetxe publikoek badute zirrikiturik oraino eskola kontseiluari dagokion garrantzia aitortzeko, eta eskolak komunitatearena izaten jarraitzeko. Zirrikitu hori EHIGEk ireki zuen aurreko ikasturte amaieran, artean

ez baitzen ezaguna Jaurlaritzaren eta Espainiako Gobernuaren akordioa. Prebentzio gisa, eskola kontseiluei honako proposamena egin zieten EHIGEk eta Sarean zuzendarien elkarteak: orain arte bezala jarraituz, eskola kontseiluari erabakitze ahalmena aitortzea. Zirrikitu horrek lehen zeukan erabakitze eskumena oso-osoki eskola kontseiluari aitortzen dio, eta zuzendariari ez dakarkio ondorio legal edo administratiborik; “legeak orain ematen dizkion eskumen horiek bere gain hartu beharrean eskola kontseiluarekin partekatzea onartzea besterik ez da”, azaldu zion *bik basi*-ri Lourdes Imaz EHIGeko koordinatzaileak; “zer garen eta zer nahi dugun izan esateko ahalmenik ez badaukagu guraso eta ikasleek ahalmen guztiak galtzen ditugu”. Bada, beraz, eskolari buruzko erabaki inportanteak eskola kontseiluak hartzen jarraitzeko zirrikiturik, Nafarroan ere. Antolaketari dagokionez eta zentralizazio-helburuei men eginez, LOMCEk zuzendarien aukeraketa-sistema ere aldatu nahi izan du. Legearen arabera, administrazioaren parte-hartzea handiagoa izango da zuzendaritzaren hautaketan —erdia baino gehiago—. Administrazioaren aurrean ikastetxearen ahots izan beharrean, administrazioaren ahots bilakatu nahi du zuzendaria eskolan,

## Eskola kontseiluaren eskumenak:

Eskola kontseiluak hezkuntza- eta kudeaketa-proiektuak, zentroaren antolaketa eta funtzionamendua onartzeko eta ebaluatzeko eskumena izan ditu orain arte. LOMCEk ebaluatzeko aukera soilik onartzen du, beraz, erakunde hau kontsultiboa, iritzi-emailea, izango litzateke eta ez erabakitzailea. Ikastetxearen proiektua bera zuzendaritzaren esku utzi nahi du LOMCEk. Orain arte, ikastetxe bakoitzaren urteko programazio orokorra onartu eta ebaluatu izan du kontseiluak. Ikasleen onarpenaren gainean erabakitzeko aukera ere badu organu honek. Hezkuntza eta kultur xedeak dituzten harremanak garatzeko ildoak ezartzeko aukera du kontseiluak. LOMCEk ildo horien inguruko informazioa jasotzeko aukera soilik aitortzen dio.

LOMCEk berez, hari aitortzen baitio hezkuntza-proiektua diseinatzeko eta garatzeko eskumen osoa. Haatik, Sarean zuzendari elkartearen planteamendua kontrakoa da, “hezkuntza komunitatearen

proiektua garatu nahi duten zuzendaritza-taldea” bultzatzen du. Sinaturiko akordio berriaren arabera, ordea, Jaurlaritza izango da eskola kontseiluaren eta zentroetako zuzendaritzaren bitarteko lanak egingo dituena, beraz, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikastetxeetan zuzendaritzak ez luke LOMCEk eman nahi dion erabakimen osoa izango.

## Euskara eta ikasleen onarpena, Jaurlaritzaren eskumen

Gasteizen eta Madrilen akordioak hizkuntza-proiektuari ere mesede egingo dio. LOMCEren arabera, gaztelania eta hizkuntza koofiziala (euskara) “arrazoizko proportzioan” batu behar dira. Akordioak, alabaina, Jaurlaritzari euskara orduak gehiago izan daitezen aukera ematen dio, “oinarrizko araudian ezarritako mugen barruan betiere”, eta hori bai, ikastetxeek aukera eman beharko dute gurasoek gaztelaniazko ereduak hautatu ahal izateko. Berrikuntza horrek ez dio eragiten Nafarroako lurraldeari.

Ikasleen onarpenari dagokion puntu bat ere sinatu dute akordioan: unibertsitatean, Lanbide Jeziketan eta curriculum espezializazioa duten eskoletan ikasleak sartzeko irizpideak Jaurlaritzak garatu ahal izango ditu aurrerantzean ere.

## Ikasturte honetan sartu diren beste aldaketa batzuk

Lehen Hezkuntzako lehen, hirugarren eta bosgarren mailetan honako aldaketa hauek sartu ditu LOMCEk ikasturte honetan:  
-Bi irakasgaitan aldaketak izan dira LHn: Espainiako Apezpikutzaren urte luzetako eskariari jarraituz, erlijioak notarako balioko du eta horren ordez irakaskai pisuzko bat egin beharko dute ikasleek: Balio

Sozial eta Zibikoak izenekoa. Espainiako Konstituzioa, armada-ereserkia irakatsi behar lirateke ordu horretan, baina Jaurlaritzak gaitegia moldatu du irail erdian eta espainiartasuna goratzeko edukiak kendu ditu. Nafarroako Gobernuak bere horretan sartu du irakasgaia.  
-Ingurunea irakasgaiak aldaketa formalak izango du, bi nota eskatzen

baititu Werten legeak.  
-Ebaluazioari dagokionez bada aldaketarik: Hezkuntza zentralizatzeko baliabide nagusietako bat errebalidak izango ditu Wertek. Ikasturte honetan, ordea, kanpo-azterketa bakarra ezarriko zaie LHko hirugarren mailako ikasleei. Azterketa horrek ez dio eragingo ikasleen espedienteari eta tokian tokiko administrazioek diseinatuko dute.



# 0-3. Hezitzaileen formazioa

Alfredo Hoyuelos, Loris Malaguzziren gaineko formazioko arduradun pedagogikoa

## “Eskola beti eraldatzen eta berrasmatzen aritu behar da, nahiz eta okerrak egin”

0-3 urte bitarteko haurren hezitzaileei zuzenduriko formazioaren bigarren ikasturteak Loris Malaguzziren filosofia izango du ardatz nagusietako bat.

Malaguzzi Italiako Corregio herrian jaio zen, 1920an. Reggio Emilia tradizio komunistako hirian bizi izan zen eta han gauzatu zuen bere proiektu pedagogikoa 55 urtez. Hasi 1946an hasi zen 0-6 urte bitarteko haurrekin, haien gurasoekin eta hezitzaileekin lanean, herri ekimenetik sortutako zortzi eskola autogestionatutan. Gero, 60etan, Udal Haur Eskola bihurtu ziren, eta berriki proiektu pedagogikoa Lehen Hezkuntzara hedatu dute Reggio Emilian.

Alfredo Hoyuelos doktore europarrak eskuz esku egin zuen lan Malaguzzirekin Reggio Emilian, eta haren pentsamenduaren eta obra pedagogikoari buruzko doktoretzia egin zuen. 0-3 formazioko ikaslerro honen arduradun pedagogikoa da, eta berak eskaini du ikasturteko sarrera-hitzaldia.



### Zergatik da hain interesgarria Loris Malaguzziren begirada Haur Hezkuntzan?

Loris Malaguzzirena hezkuntza filosofia orokor bat da, haurrari zuzenduriko begirada orokor bat da, nola ikusi umea eta, batez ere, gizakia ikusteko modu oso interesgarri bat eskaintzen du Malaguzziren hezkuntza-filosofiak. Ez da 0-3 edo 3-6 etapetarako filosofia edo pedagogia bat, baizik eta haurra, hezkuntza, mundua ikusteko modu bat da.

### Zein dira begirada horren ezaugarri nagusiak?

Malaguzzirentzat hezteak dibertsioa, baikortasuna, barrea eta alaitasun neurrigabea esan nahi zuen. Horrexegatik, egunero, haur-eskoletatik ateratzen naizenean hainbat galdera egiten dizkiot neure buruari Loris Malaguzziren pedagogian oinarria dutenak. Batetik, “nola dibertitu naiz gaur?”. Malaguzzirentzat dibertsioa oso garrantzitsua zen; berak uko egin zion aspertzeari. Berarentzat oso inportantea da haur eskoletan umeekin dibertitzea, baina baita lankideekin eta familiarekin ere.

Dibertsioaz gain dibergentzia inportantea da. “Espero ez nuen zer jaso dut gaur?” Berarentzat oso inportantea zen ustekabea, harridura, transgresioa. Errutinaren kontra zegoen; errepikatzearen, programazioaren, dena alde aurretik erabakita edukitzearen kontrako zen. Eta hor badago hezkuntzaren kalitatea. Inportantea da geure buruari galdetzea zenbat gauza berri


deskubritu ditugun haur-eskolan, eta 0-3, 3-6 edo 6-12an berdintsu da, galdera hori beti da oso inportantea. Neure buruari galdetzen diot, baita ere, zenbat dokumentatu dudan. Malaguzzirentzat oso inportantea zen aztarnak uztea, dokumentatzea. Haurra ezagutzea oso inportantea zen, eta aztarnak —dokumentazioa— uztea hainbat moduta, panelen, bideon bidez..., Baina dokumentazioaren helburua ez da deskribapena, narrazioa baizik, hau da, nola interpretatzen dudan umeek interpretatu duten mundua. Desberdina da.

Beste galdera bat: “Zer egin dut ederra?”. Malaguzzirentzat oso inportantea zen edertasuna. Itsusiari uko egiten zion. Zer objektu aukeratu ditut umeentzat? Zer proposamen, zer material, nola jarri ditudan, nola kontuan hartu dudan argia, kolorea, soinua... Garrantzia handia ematen zion umei eskainiko diegun hori ondo aukeratzeari. Ume txikiei objektu bat eskaintzean, diseinuaren kalitatea begiratu behar duzu. Reggio Emilian polisentsorialitateaz hitz egiten dute, diseinuaren konplexutasunaz.

Horrez gain, beste ekarpen edo galdera interesgarri bat honako hau da: “Nire lanbideak egunero zer eragin politiko dauka?”. Malaguzzirentzat oso garrantzitsua da pedagogiaren eta politikaren arteko harremana. Berarentzat gu gizaki politikoak gara; zer aukera ditugu gizartea, mundua, kultura aldatzeko?

### **0-3 urteko haurrei objektu konplexuak eman behar zaizkie?**

Haurrak, jaiotzen den unetik, gaitasunak ditu, eta gaitasun horiek garatzeko baldintza egokiak eskaini behar zaizkie. Malaguzzik esaten zuen umeek munduko konplexutasuna ulertzen dutela, eta konplexutasuna behar dutela. Nola neur-



Loris Malaguzzi

tzen duzu konplexutasuna? Objektu batekin egin ditzakeen erlazio kopuruaren arabera. Zuk fitxa bat ematen badiozu urtebeteko ume bati, erantzun bat bakarra duen fitxa bat, (“zirkulu baten barruan sartu behar dituzu gometxa gorriak, bestela oker egin duzu”) aukera bakarra eskaintzen diozu. Objektu bat ematen badiozu, eta objektu horrek mila aukera ematen baditu, konplexutasun handiagoa du, eta ikuspegia itxi orde, zabaldu egiten du haurrak.

Koloreari dagokionez, adibidez, kolore primarioak, ñabardurarik gabekoak, ez aukeratzea gomendagarria da; edo kausa-efektua oso lotua duten objektuak beharrean —ukitu eta zaunka egiten duen txakur-panpin bat, adibidez—, egituratu gabeko materialak ematea egokiago ikusten zuen.

### **Esan duzu Malaguzzirentzat garrantzitsua zela pedagogiaren eta politikaren arteko harremana. 0-3 zer zentzutan da politikoa?**

Malaguzzik oso argi ikusten zuen: mundua, kultura, gizartea... alda dezakegu, eta nola? Umeen kulturatik hasita, eta gurasoekin lan eginez. Adibide zehatz bat jarriko dizut: Mendillorri Udal Haur Eskolan ostiraletan ume talde txikietan auzora ateratzen gara gurasoekin. Konturatu gara helduak helburu bat izaten duela, norabait zerbait ikustera joateko helburu zehatz bat izaten du, eta hara zuzentzen du txangoa; putzuak saihesten ditu, adibidez; umeak, berriz, putzuan gelditzen dira, jolasten, aukerak bilatzen, zapuzten... Kasu honetan, gurasoei eskatu diegu bigarren planoan gelditzea eta umei jarraitzea, eta guraso batzuek jarre-

ra aldatu dute: etxetik ateratzean ez dira helburu batekin ateratzen, eurekin egindako lanaren ondoren, eta dokumentazioa aztertu ondoren, hiria beste modu batera ikusten dute, jolasa eta mundua ez dagoela parkean ikusi dute, baizik eta edozein lekutan; eraldaketa hori politikoa da.

Oso *malaguzzianoa* da ez uztea haurren kultura eskolako pareten barruan, eta hirira aurkeztea, publikoki ikustea umeez nola esperimendatzen duten, ulertzen duten, bizi diren... politikoki era horretan gauzak alda daitezke.

Eskubideena arlo garrantzitsua da, gizartean, eskolan ze eskubide dituzte haurrek? Eskubide garrantzitsu bat da haien aukerak errespetatzea, eta horretarako entzun egin behar zaie.

### **Programazioaren ordezkariak Malaguzzik proiektuak lan egitea proposatzen du. 0-3an nola?**

Ez dago aldaketarik 3-6koarekin. Programazioak alde aurretik helburu didaktiko batzuk ezarri eta umeez helburu horiek lortzea eskatzen du. Adibidez, umeez kanpoa eta barrua bereizten ikasteko hainbat jardura egin ditzakegu, uztai baten barruan sartzeko eta ateratzeko esan diezaiekegu, edo fitxa batean gometzak zirkulu baten barruan eta kanpoan jartzeko agindu diezaiekegu... horrelako gauzak egin egiten dira gaur egun hemen programazioak jarraituz. Proiektuak aukerak ematen dizkie haurrei, helburuak jarri gabe. Hainbat gauzaren artean uztai bat ematen badiot haurrari, baina ziurgabetasunarekin jokatzeko badut, onartuko dut ez dakidala zer egingo duen uztaiarekin, barruan sartuko den eta etxetat hartuko duen edo airera botako duen eta ea

hegan egiten duen begiratuko duen... Aukera ez dela bakarrik ikusiko dugu.

Hezitzaileon egitekoa oso garrantzitsua da; batetik, proposamenak eta materialak eta aukerak prestatu behar dizkiegu, zerbait behar baitute gaitasunak garatzeko; ordea, gero haiek zer erabaki, beste gauza bat da. Bigarrenik, gure interbentzioa eutsi behar dugu, baina, eta hirugarrenik, alboan egon behar dugu, ziurtasun afektiboa emateko.

Malaguzzik honakoa esaten zuen hezitzaileon etikari buruz: "beti balizko aukeren kopurua handituko duzun moduan joka ezazu".

### **Entzuteari garrantzia handia ematen zion Malaguzzik, umeez errespetatzeko entzun egin behar dela zioen...**

Ezin daiteke entzun errespetatu gabe, eta ezin daiteke inor errespetatu entzun gabe.

Malaguzziren ikuspuntutik oso garrantzitsua da ulertzea entzutea ez dela bakarrik adi egotea eta umeez esaten dutena ulertzea, baizik eta entzuteak ardua etikoa dakarrela, entzute horren ondorioz hezkuntza praktika aldatzeko prest egotea esan nahi du, errespetatzea. 2 urteko ume batek goizeko hamarretan patiora jolastera joan nahi duela esaten badizu, entzutea ez da "bai entzun dizut", esatea, "baina itxoin behar duzu, guk antolatu dugun eran 11k arte ezin gara atera"; Malaguzzirentzat hori ez da entzutea, zuk antolakuntza aldatu behar duzu umearen nahia eta eskubidea errespetatzeko. Ume batek esaten badizu orain nahi duela joan patiora jolastera, helduak ikusi behar du nola antolatu duen eguna nahi hori bideratzeko; batzuetan ez da erraza, ezinezkoa da ratioengatik... baina beste batzuetan ohiturak dira



erresistentzia ezartzen dutenak. Entzutea da umeen nahiak, umeen eskubideak bideratzea. Zuk ikusten baduzu 11 hilabeteko ume bat objektu batekin gustura ari dela jolasten, baina zure antolaketaren arabera pixoihala aldatzea dago kiola, bi aukera dituzu: helduaren antolakuntza jarraitzea eta, tokatzen zaionez, pixoihala aldatzea; edo umearen nahia ikustea, eta egiten ari den hori interesgarria denez, itxoitea. Itxoitea oso garrantzitsua da. Zenbat itxoiten diegu umeei? Haien denborak ez dira gureak bezalakoak, ez daukate gure erritmoa.

Malaguzzirentzat oso garrantzitsua da dugun antolakuntza aldiero urratzea: ziurgabetasuna da hori. Betiko antolakuntza urratzen du, edo hil egiten da eskola. Batzuetan honako hau entzuten dut: "Beti modu hone-tan egin dugu, eta funtzionatzen du"; Malaguzzirentzat hori ezinezkoa da. Eskola beti eraldatzen eta berrasmutzen aritu behar da, nahiz eta okerrak egin. Inportantea da okerrak egiteko eskubidea izatea. Batzuetan beldur gara, eta beldurra minbizia bat da. Ezinezkoa da beti betiko gauzak egitea. Horrexegatik asmatu zuen atelieristaren figura, gauzak urratzeko, gauzak beste modu batera egiteko, gauza eroak egiteko. Malaguzzik defendatzen zuen hezkuntzan ari garenok eroak izan behar dugula. Dena alde aurretik jakinda ezin da hezi.

### **Horretarako oso garrantzitsua da familien parte-hartzea eta konfiantza, ezta? Familien parte-**

### **hartzeari garrantzia handia ematen zion Malaguzzik.**

Nik hiru gauza desberdintzen ditut partaidetzari loturik. Batzuetan partaidetza ulertzen da informazioa emate gisa, hezitzaileak gurasoei kontatzen die seme-alabek zer egin duten; nire ustez batzuetan konfunditzen da parte hartzea informazioa emate-jasotzearekin. Beste forma bat kolaborazioa da: inauteriak antolatu ditut, eta gurasoen kolaborazioa eskatzen dut; ez da nahikoa Malaguzziren ikuspuntutik. Berarentzat gurasoen partaidetza bi gauza dira: 1. Gurasoen hitzak eta iritziak kontuan hartzea. Haien nahiak, kultura kontuan hartzea eta agian gure antolakuntza aldaraztea eta eraldatzea. Haur eskoletan batzuetan itxita daukate atea gurasoek; partaidetza sartzea da. Eta 2. Partaidetza sentimendu bat da: nola sentitzen diren eskolako parte. Batzuetan sartzen dira baina ez dute sentimendu hori, zerbaiten parte izatea. Malaguzzirentzat partaidetza batez ere sentimendu bat da. Reggio Emiliako haur eskoletan funtsezko elementua da familien esku-hartzea.

**Formazioari begira, lehendabiziko urtean Emmi Piklerren pedagogiaren hurbilketa bat izan da ardatz. Piklerrek behin eta berriz esaten du umearen erritmoak errespetatu behar direla, eta puntu hori oso garrantzitsua da baita Malaguzzirentzat ere. Nola uztartzeko da Malaguzziren pedagogia Emmi Piklerrenarekin?**

Oinarrian badaude gauza oso parekoak: biek pentsatzen dute umeek badituztela eskubideak, eta gaitasun pilo bat badituztela. Eta umeak errespetatzeko estimulaziorik gabe egin behar dela, oinarri horretan gauza bera ikusten dut biengan. Errespetua oso garrantzi-

tsua da bietan. Estimulazioaren kontra, zer aukerak dituzten ikusteko entzun behar ditugu umeak. Malaguzziren ikuspuntutik, jaiotzen garen momentutik 100 hizkuntza baditugu, eta helduok ikasi behar dugu haurrari nola entzun. Hipotesia da Malaguzzirentzat umeak badakiela hitz egiten, badakiela marrazten... hizkuntza guztiak badituela. Haurrak gaitasunak garatzeko baldintza egokiak behar dituela ikusi zuen Malaguzzik.

Ezberdintasun batzuk badira Piklerren eta bien artean. Hasteko eta behin, kultura aldetik: Pikler kultura austrohungarokoa da, eta Malaguzzi oso latinooa zen, eta beste balore batzuk ditu, eta hori gauzak egiteko garaian ikusten da. Desberdintasun horiek, nire ustez, politikak izan daitezke, nahiz eta batzuetan ez den erraza izango uztarketa. Piklerrek protokolo edo koreografia oso zehatz eta interesgarriak egin ditu, Malaguzzi askoz kaotikoagoa da, zentzu onean. Kaos horretan koreografia bilatzea erronka handi bat da.

**Reggio Emiliako testuingurua oso berezia izan da, komunista eta antifaxista. Gaur eta hemen, egoera**

**desberdina da. Oker bat egingo genuke hango ereduaren kopiatu nahiko bagenu, ezta?**

Hemen egoera oso desberdina da. Jakin behar dugu gauzak itzultzen; modek ez digute balio. Iruñeko gizartea —nik lan egiten dudan lekua— oso desberdina da ekonomikoki eta kulturalki Reggio Emiliakoaren aldean. Akats handi bat litzateke Reggio Emiliako esperientzia kopiatzea. Baditugu beste balore batzuk, beste antolakuntza batzuk, beste ratio batzuk, gurasoen kultura oso desberdina da... Eredua kopiatu ez, askoz polikiago joan behar dugu, ideiak ondo landuz, gauza xumeak oso ondo eztabaidatuz alde aurretik... eta beste kultura batzuk sortu behar ditugu. Reggio Emilian sortuta dago aspaldi.

Reggioko esperientziak jarraitzen du, handitu da, zabaldu da. Hango gizartea ere aldatu da, baina kooperazio balore batzuek, nire ustez, jarraitzen dute. Kooperatibismoa gizartean oso sartua dago, eta bileretan ere nabaritzen da, eztabaidatzeko ohitura handiagoa dute, baina ez bestearen kontra joateko, baizik eta elkarrekin zerbait eraikitzeko, nahiz eta iritzi desberdinak izan.



## Haurrak Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskolan

**Pasa den ikasturtean Haur Hezkuntzako 328 haur eta haur horien 18 irakasleak etorri dira Donostiako Ikasleen Unibertsitate Eskolara. Unibertsitate Eskolan, 3-6 urteko haur horiek 13 zientzia-lantegi eta 16 psikomotrizitate-saio egin dituzte, gure ikasleek gidatuta eta lagunduta. Esperientzia hori abian jartzeko arrazoiak, berorren onurak eta topatu ditugun zailtasunak ere azaldu nahi genituzke artikulu honetan.**

**Josu Sanz**

ZIENTZIA-LANTEGIEN ARDURADUNA  
DONOSTIAKO IRAKASLE ESKOLAN

**LUISPE GUTIERREZ**

DONOSTIAKO IRAKASLE ESKOLAKO PSIKOMOTRIZITA-  
TE-SAIOEN ARDURADUNA ETA ELKARRIKERTUZ  
TALDEKO KIDEA

Orain dela lau urte hasi zen dena. Orduantxe jarri baitzen abian Bologna plana Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskolan. Plan berria ezarri izanaren ondorioz, gure ikasketak gradu bihurtu ziren, eta horrek, besteak beste, ikasleen ikastaldia urtebete luzatzea ekarri zuen.

Laugarren ikasturte berri hori espezialitate txiki baten moduan zegoen aurreikusita. Minor izena jarri zitzaion laugarren urteari, eta, Haur Hezkuntzaren barruan, lau minor ematen hasi dira aurten gure eskolan: Atzerriko Hizkuntza; Heziketa Berezia; Euskara, hezkuntzarako tresna, eta Haur Hezkuntzako Lantegiak.

Azken minor horretan kokatzen da goian aipatu dugun esperientzia. Izan ere, *Lantegiak* zuen izena minorrak, eta, maiz gertatu ohi denez, izenak eman dio izana. Irakasleen Esko-

la lantegi bihurtu nahi genuen, eta horretan ahalegindu ginen buru-belarri.

Lehen pausoa, gurean, psikomotrizitate-gela bat atontzea zen. Aurre-proiektu bat aurkeztu genion zuzendaritzari. Begi onez ikusi zuen zuzendaritzak, eta halaxe helarazi zion Gipuzkoako Campuseko Erretoreordezari. Guztion artean eta hiru urteren ondoren, psikomotrizitate-gela bat inauguratu genuen iazko ikasturtean.

Orduko hartan (2013ko apirila), Zubietako Herri Ikastetxea hurbildu zen gurera, eta, psikomotrizitate-saioaz gain, plastikako lantegi bat ere antolatu genuen eskola horretako haurrekin. Jarduera horren arrakasta ikusita, horri guztiari hurrengo ikasturtean segida nola eman pentsatzen hasi ginen.

### **Lehen pausoa: gure ikasleak proiektuan konprometitzea**

Esperientzia horrek irakasgaiaren planteamendu metodologikoa guztiz birpentsatzea zekarren berarekin. Argi eta garbi zegoen haurrak ekarri behar genituela, gure eskolan irakasgaia lantegi bihurtu nahi bagenuen. Nola lortu, baina, haurrak gure eskolara etortzea? Nola bideratu gonbida-

pena?

Esperientzian gure ikasleak konprometitu behar genituela erabaki genuen laster. Bestela, betiko dinamika sortuko genuen, alegia: irakasleak jarduerak proposatu, eta ikasleek horiek bete. Gainera, gure ikasleak laugarren maila egitera zihoazen, eta zeharo sinetsita geunden ikasle hutsak (zentzurik pasiboenean) baino zerbait gehiago izan behar zutela.

Bestalde, gure ikasleek hamabi asteko praktikaldia (Practicum III) bete behar zuten ikastetxe batean. Hamabi asteko praktikaldia nahiko denboraldi luzea da haurrekin nahiz haur horien tutorearekin ere harreman sendo bat eraikitzeko. Egoera horretaz baliatu behar genuen, haurrak gurera ekartzeko!

Ikasturtearen hasieran, ikasleak bildu genituen, eta gure asmoaren berri eman genien. Aukera polita iruditu arren, harridura eta errefus-aurpegiak nagusi ziren ikasleen artean. Ez zegoen nahikoa zabaldua, eta ez dago oraindik ere, ikasleak gelatik kanpoko jardueretan inplikatzeko kulturarik. Gainera, proiektu honek ikasleei "plus" bat eskatzen die: ikaste-prozesuetan aktiboki parte har-



tzea, ikasle huts izatetik harago joatea, alegia.

Dena den, ikasleak lasaitu egin genituen, gonbidapena egin genien, eta azaldu genien ez zutela besterik egin behar. Ikastetxeak nolabaiteko interesa azalduz gero, gurekin jarriko zen harremanetan, eta denon artean bideratuko genuen jarduera.

### **Bigarren pausoa: ikastetxeen konfiantza irabaztea**

Azaroaren amaiera aldera joan ziren ikasleak praktikak egitera, eta, urtarilaren erdialdean, gonbidapenak egiten hasi ziren. Berehala hasi ginen erantzunak jasotzen. Ikastetxe batzuek, gehienek, jadanik ikasturteko irteera guztiak antolatuta zeuzkaten, eta ez zuten gurera etortzeko aukerarik ikusten. Beste batzuek, berriz, interesa azaldu zuten, eta jarduera prestatzen hasi ginen, praktiketan ari zen ikaslea bitartekari hartuta. Hala ere, hutsune batzuk gelditu zitzaizkigun, eta zenbait ikastetxe prest agertu zen hutsune horiek bete genitzan haur talde bat baino gehiago bidaltzeko. Azkenik, alde zuzenik pentsatuta genituen zientzia-lantegi eta psikomotrizitate-saio guzti-guztiak egin genituen.

### **Hirugarren pausoa: jardueraren antolakuntza**

Honetan ere, buru-belarri sartu ziren gure ikasleak. Haiek lagundu zieten ikastetxeetako irakasleei haurrak gurera ekartzen. Haurrak oso pozik zetozen aste batzuetan, maisu edo maistra izan zuten pertsona gazte horren "eskola" ezagutzera. Gainera, beraien irakasleek ere duela urte batzuk eskola honetan ikasi zuten kasurik gehienetan. Haiek ere pozik zetozen berriro "Irakasle Eskolara".

Eskola honetara etorrita, haurrak



zientzia-lantegiak egiten hasten ziren, talde txikitik banatuta. Gure ikasleek antolatzen zuten jarduerak osoa: batzuek lantegiak gidatzen zituzten; beste batzuek haurrek egiten zutenari behatzen zioten, eta ebaluatu egiten zuten. Zientzia-lantegi horietan, gai hauek jorratu ziren, besteak beste: argia, soinua, erleak, frutak, lur- eta eguzki-sistema, etab.

Zientzia-lantegia bukatuta eta hamaitakoko txiki bat egin ondoren, psikomotrizitate-gelara zuzentzen ziren haurrak. Gela horretan, harrera egin zieten gure ikasleek, eta, sarrerako erritualaren ondoren, saioari ekiten zioten. Kasu honetan ere, gure ikasleak arduratzen ziren saioez, lauzpabost laguneko taldetan banatuta. Besteek beraien ikaskideek zer egiten zuten ikusten zuten, eta eba-

luatu egiten zuten. Esan beharra dago saio horietan Bernard Aucouturier-en Praktika Psikomotorraren ereduari jarraitu zitzaioela.

### **Laugarren pausoa: eta irakasleok zer?**

Unibertsitateko nahiz ikastetxeetako irakasleok bigarren planoan gelditzen ginen jarduerak zirauen bitartean. Haurrak eta gure ikasleak ziren protagonista nagusiak, eta, beraz, gure zeregina bestelakoa zen: elkarren arteko trukea. Izan ere, gauza asko genituen hitz egiteko: nola ikusten zituzten hemengo lantegia eta saioa, nola egiten zituzten horrelako jarduerak ikastetxe bakoitzean, zeren falta sumatzen zuten...

Unibertsitatea eta Eskola elkarrengandik oso urrutiti bizi dira, eta ho-

rrelako jarduerak bien arteko zubiak eraikitzen laguntzen dute. Hori ere bazen gure helburuetako bat: Unibertsitatea eskolaren errealitatera hurbiltzea.

### **Bosgarren pausoa: balorazioa**

Gure ikuspuntutik, oso positiboki balioetsi dugu lehen esperientzia hau. Etorritako haurrak gustura ibili ziren gure “eskolan”, gure ikasleek lagunduta. Gainera, askotariko jarduerak didaktikoak gauzatzeko aukera izan dute biek ala biek.

Horretaz gain, gure ikasleak trebatu eta gaitu egin dira. Gradu ikasketetan ikasitako zenbait kontzeptu teoriko hezur-mamizko hurrekin praktikan jartzeko aukera izan dute. Egia da sortu dugun egoera ez dela bene-benetakoa. Nagusi bakoitzeko haur-kopurua askoz txikiagoa zen edozein ikastetxetan baino. Hala ere, haurrak, gure ikasleak eta materialak guztiz errealak ziren, eta errealitateak sortzen dituen ezustekoei erantzuna eman behar izan zaie.

Bestalde, ikastetxeetatik etorritako irakasleek aukera paregabea izan dute beraien ikasleei beste testuinguru batean behatzeko. Gainera, aurrez esan bezala, jarduera honek aukera eman die beraiek egiten dutena eta gaur egun unibertsitatean irakasten dena alderatzeko.

### **Eta azken puntua: mila esker etorritako guztiei!**

Esperientzia hau ezin izango genuen gauzatu zenbait ikastetxek gure gonbidapena onartu izan ez balute. Azken lerro hauek honako ikastetxeentzat doaz, eskerrak emateko:

- Aitor Ikastola
- Arantazuko Ama Ikastola
- Axular Lizeoa
- Ekintza Ikastola
- Hirukide Ikastetxea
- Lizartzako Herri Eskola
- Santa Teresa Ikastetxea
- Udarregi Ikastola
- Zubietako Herri Ikastetxea
- Zuhaizti Eskola Publikoa

## ZUBIETAKO ESKOLA ETA IRAKASLE ESKOLA ELKARLANEAN

# Unibertsitatearen eta eskolen arteko loturak sendotzen

**Erlazio pedagogietan indarra jarriz, elkarlanean hasi dira Zubietako Eskola eta Donostiako Irakasleen Eskola. Bien arteko truke-harremana sortu dute, hiru xede nagusirekin.**



2012-2013 ikasturtean hasi zen Zubietako Eskolaren eta Donostiako Irakasleen Eskolaren arteko harremana, Estibaliz Jimenez de Aberasturik, plastikako unibertsitate-irakasleak eta Elkarrikertuz ikerketa-taldeko kideak, eguneroko eskola-jarduera aztertzea eta bertan parte hartzea erabaki zuenean: “Ikerketaren munduan, gehiegi urruntzen gara askotan egunerokotik, eta, irakaslegaien irakasle naizenez, errealitatera hurbiltzeko eta benetako irakasleen jardunean parte hartzeko beharra sentitu nuen”. Aurretik ere, hainbat irakasle elkarriketatu zituen, baina gelan bertan egon nahi zuen. Hala, harremanetan jarri zen Maria Herradorrekin, Zubietako Eskolako 2-3 urteko haurren irakaslearekin, eta zenbait

egunez hara joaten hasi zen; hasiera hartan, praktiketako ikaslea balitz bezala, begiratzera eta haur-eskolako irakasle hark nola lan egiten zuen ikustera joaten zen soilik.

Izan ere, Elkarrikertuz taldearen helburua irakasle burutsuak nola sortu ikertzea izan da hasieratik. Lana egiteko moduari dagokionez, berriz, galderak planteatzen dituzte lehenik; galdera horiek komunitatera eramaten dituzten ondoren; komunitatetik, galdera gehiago jasotzen dituzte gero, eta elkarrekin pentsatzen dute azkenik. Horrexegatik, erlazio pedagogikoa hasi dute Zubietako Eskolarekin, ikerketa-taldearentzat eskolekin harremanean egotea bereziki garrantzitsua delako: “Objektuetan edo edukietan baino gehiago, erlazio pedagogikoetan jartzen dugu indarra.



Ildo horretan, gure egitekoa irakasleei euren prestakuntzarako laguntza ematea da, baina ez aholkatzea edo doktrinatzeari.

Zubietako Eskolan, proiektuen bidez egiten dute lan. 2012-2013 ikasturtean zehar, “pelikula” proiektua landu zuten, eta, Aberasturi hasieran behatzaile gisa besterik joan ez bazen ere, segituan hasi zen proiektuan eta eskola-jardunean parte hartzen. Hark gomendatuta, Hayao Miyazaki zuzendariaren *Nire auzokide Totoro* filma lantzea erabaki zuten, eta gero eta gehiago inplikatu zen pixkana: “Gerroztik, Zubietako Eskolako ikasgelan nagoenean, ez dut soilik behaketa egiten, behaketa parte-hartzailea deritzoguna egiten dut. Ni ikasgelan nago, eta irakaslearen beharren arabera jokutzen dut. Niretzat, izan ere, garrantzitsuena horixe da: irakaslearen beharrak identifikatzea, eta horiei erantzuten jakitea”.

Harremanak jarraitu egin zuen, eta elkarlanean jarraitu zuten, 2013-2014 ikasturtean ere, Zubietan arkitekturaren inguruko proiektu bat landuz. Proiektua animalien bizitokiak eta haietako zenbaitek eraikitzen dituzten gordelekuekin hasi zuten, eta gizakiek historian zehar eta gaur egun zer-nolako eraikuntzak egin dituzten aztertu dute gero. Prozesu horretan, bi kasu zehatzetan zuzenean esku hartu zuen Aberasturik hainbat saiotan, Zubietako irakasle Herrado-

rri laguntzeaz gain. Batean, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko kide batekin joan zen. Sare handi bat eraman zuten, eta haurrei esan zieten haren azpian guztiek jolasteko moduko toki bat egituratu behar zutela: emakumezkoak modu batera eta gizonezkoak beste era batera zergatik jolasten diren hausnartzea zen helburua. Beste batean, berriz, Friedrich Hundertwasser arkitektoaren lana aurkeztu zien haurrei Aberasturik. Ez ditu eraikin berriak egiten, baizik eta eraikita daudenen gainean esku hartzen du. Beraz, haren lanei jarraiki jardun zuen haurrekin ere.

### Haurrak unibertsitatean

Unibertsitateko irakaslea Zubietako Eskolara joateaz gain, Zubietako Eskolako haur eta irakasleak ere izan dira unibertsitatean, arkitekturako proiektuarekin lotuta. Haurrak iritsi aurretik, hauxe azaldu zien Aberasturik irakasle-eskolako bere ikasleei: “Zubietako haurrak arkitekturako proiektu bat ari dira lantzen. Guregana datoz. Hortaz, zer presta dezakegu haiekin batera jorrazteko?”. Eta unibertsitateko ikasleek arkitekturako saio bat prestatu zuten: batetik, haurrei antzerki txiki bat egin zieten, bistan zetozen turistak zirela esanez, eta blokeak erabiliz haien herriko hainbat toki eraikitze eskatu zieten psikomotrizitate-gelan; bestetik, plastikako gelara eraman zituzten, eta han,

berrerabil daitekeen materiala erabiliz, unibertsitateko ikasleek erdi egin da zuten maketa bat osatzeko proposatu zieten. “Gure xedea ez da izan helburu zehatz batekin zerbait zehatza lantzea, elkarrizketan oinarrituz eta elkarlanaren bidez elkar ezagutzea eta aberastea baizik”.

Elkarlana sendotu egin dute ordutik. Zubietako Eskolan behaketa-lana egiten jarraituko dute unibertsitateko irakasleek. Horrez gain, kanpoko unibertsitateetako jendea Donostiara datorrenean, Zubietako Eskolara eraman dituzte, hango jarduna erakustera, eta, elkarlanean, ekintzaren bat egiten dute eskolako haurrekin, gero elkarrizketari eta hausnarketari bide emateko. Gainera, Zubietako Eskolako irakasleak Irakasle Eskolako irakaslegaiei beren lan egiteko modua azaltzera joaten dira unibertsitatean, eta, horrez aparte, unibertsitateak antolatzen dituen bestelako saio eta jardunaldietan ere parte hartzen dute. Azkenik, Irakasle Eskolan prestatu berri duten psikomotrizitate-gelara gonbidatuko dituzte eskolako haurrak, irakaslegaiek saio bat prestatzen dute haientzat, eta, gero, txosten bat osatzen dute han landutakoarekin. Aberasturik azaldu duenez, Zubietako Eskolaren eta Irakasle Eskolaren artean, elkarlanaren bidez, truke-harreman bat proposatzen da: “Horrela, eskolak unibertsitatean sartzen dira, eta unibertsitatea eskoletan. Lan egiteko modu horretan, garrantzirik handiena alderdi guztietako kideon prestakuntzak du”.

Elkarlana Zubietako Eskolarekin hasi badute ere, unibertsitatea inguruko beste eskolei ere atea irekitzen ari da pixkanaka. Eskola horietako haurrentzat unibertsitatean bertan saioak prestatzeko, benetako zenbait lantegi eraikitze asmoa dute: “Pixkanaka ari gara, baina helburua eskolen eta unibertsitatearen arteko elkarlanerako bideak zabalduz joatea da, eta, talde-lan horretan, unibertsitateko irakasleok eta ikasleak ez zik eskoletako irakasle eta haurrak ere inplikatzeari”.

## Nolako garrantzia dute osasun-edukiek euskal hezkuntzan



Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko euskal ikasleek osasunari buruz dituzten edukiak nola banatzen diren jakin nahi izan dugu dekretu eta legediaren azterketa baten bidez. Eduki horiek azken urteotan aldatuz joan direla ikus dezakegu, etorkizuneko gizartearen osasun-ezagutzaren jakintza desorekatua bultzatuz, ikasle eta ikastetxeetako eskaintza akademiko ezberdinengatik.

### Helburuak

- LH, DBH-ko eta Batxilergoko curriculumetan osasun-edukiak aztertzea.
- Hezkuntzako legediaren ezarpenak aztertzea.
- Europako eta Amerikako Estatu Batuetako egoerarekin konparatzea.
- Etorkizunerako osasun-educien hezkuntzarako gogoeta.

### Metodoak

- Osasun-hezkuntzaren edukiak aztertu, LHn, DBHn eta Batxilergoan EAEn, Espainian eta beste herrialde



**Angel BIDAURRAGA**  
MEDIKUNTZA FAKULTATEKO IRAKASLEA

batzuetan.

- Hezkuntza dekretuak aztertu
- Osasun-hezkuntza neurtzeko galdeketak egin Medikuntzako lehen mailako ikasle
- Adituekin elkarrizketak

### Emitzak

#### **EUSKAL HERRIKO HEGOALDEA** Curriculum ofizialetan

Lehen hezkuntzan (12 urte) osasun edukiak bi ikasgaietan banatzen dira: natur zientziak eta soin heziketa.

Zientzietako gaitasunen artean 2. blokean kokatuta daude eduki gehienak: anatomia-fisiologia, zentzumenak eta nerbio-sistema, nutrizioa, erreproduktzioa, gaixotasuna eta osasuna, ohitura osasungarriak eta lehen sorospenak.

Derrigorrezko bigarren hezkuntzan (12-16 urte) osasun-hezkuntza gehienbat Biologia ikasgaietan ematen da, baina badaude gai batzuk soin heziketan eta berriki desagertu den Herriartasunerako Hezkuntzan ematen direnak. Edukiak hauek dira: Giza gorputzaren antolaketa, Elikadura eta nutrizioa, Nutriziorako aparatuak, Harreman funtzioak, Giza ugalketa eta Osasuna eta gaixotasuna.

Batxilergoan ikasleen lerro kurrikularrak eta zentroetako eskaintza akademikoak baldintzatzen ditu hezkuntzaren edukiak ikastea ala ez. Horrela badaude ikastetxe batzuetan hautazkoa moduan, anatomia ikasgaia, biologia ikasgaiak atal batzuk eta baita Batxilergo artistikoan anatomia aplikatua deitzen den ikasgai berezi bat ere. LOMCEren eraginez

Mundu Garaikiderako Zientziak ize-neko ikasgaia desagertu da. 2006ko legearen ondorioz, ikasgai hori derri-gorrezkoa zen Batxilergoaren lehenengo ikasturtean, eta horren helburua zen ikasle guztiei zientzien inguruan (osasuna barne) oinarritzko ezagutzak ematea, gaur egungo gizartean zientziaren egungo gizartean zientziek duten garrantzia nabarmentzea, zientziaren egungo erronka nagusiak zeintzuk diren azaltzea eta abar.

Herritartasunerako Hezkuntzarekin gertatu bezala, badirudi ikasgai hori desagertze arrazoi ideologikoei egotzi behar zaiela, Eliza katolikoa-ren sektore batzuek ez baitzuten begi onez ikusten eta zenbaitek —Concampa Ikasleen Gurasoen Konfederazio Katolikoak, esaterako—, “Herritartasunerako Hezkuntza baino kaltegarrikotzat” jotzen zuten Mundu Garai-kideko Zientziak ikasgaia.

2007an curriculum berria ezarri zenean, gorputz hezkuntzak galera handia jaso zuen 196ko dekretutik, Lehen Hezkuntzan zein DBHn. Lehen Hezkuntzan %40 murriztu zen, eta DBHn %38. Lehen ere, 1996ko dekretuaren garaian ikusten zen dekretuak berak finkatzen zituen helburu orokorrak eta konpetentziak lortzea ezinezkoa zela ordu kopuru horrekin: beraz, erokeria zen 2007an curriculum helburu eta gaitasunen arloan aberastea eta ordu kopurua are gehiago murriztea.

### **Ikastolen ibilbidea**

Ikastolen Elkarateak argitaratutako 2004ko “EUSKAL CURRICULUMAKO adituen ekarpena” liburuan Giza gorputzaren atal nagusiak lau azpiatal ditu: 1- giza gorputza eta osasuna 2- gorputz hezkuntza 3- elikadura eta gastronomia osasunaren ikuspegitik 4- gastronomia. Lehen atala (53 orr.) Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeko (OEE) 3 kideen artean egina da go eta bertan jartzen duenez “pertsonek garapena osoa izan dadin, giza gorputzaren eta osasunaren inguruko ezagutzak landu beharrezkoak iruditzen zaizkigu”. Edukien hautaketak 3 hezkuntza berezitasun jartzen

dituzte: kontzeptuen ezagutza, trebetasunak eta jarrerak.

Edukiak 4 multzotan banatzen dituzte:

1- Giza anatomia eta fisiologia. Gorputza, erakuntza, hezurdura, muskuluak, nerbio-sistema, sistema urogenitala, sistema endokrinoa, sistema digestiboa, arnas-sistema, zirkulazio-sistema eta larruazala.

2- Sexologia. Ugaltze-sistema, sexua: ugaltzea eta erotismoa, sexua kultur ezberdinetan, sexuaren arriskuak eta antzutasuna.

3- Medikuntza zientziak: osasuna, gaixotasuna eta heriotza, osasunaren promozioa eta prebentzioa, osan-egoera Euskal Herrian, diagnostiko-rako frogak osagarriak, patologia infekziosoa eta parasitarioa, neoplasia-kiak, odoleko eta organo odol-sortzaileetako gaixotasunak, gaixotasun endokrinoak, nutrizional eta metabolitikoak, trastorno mentala eta portarea trastornoak, nerbio-sistemaren gaixotasunak, sentimenei trastornoak, zirkulazio-sistemaren gaixotasunak, arnas gaixotasunak, aparatua digestiboaren gaixotasunak, sistema urinarioko gaixotasunak, larruazaleko gaixotasunak, bihotz birikietako geldialdia, traumatismoak, intoxikazioak eta kanpoko kausen beste ondorio batzuk, eta osasun-sistemak Euskal Herrian.

4- Farmazetika: farmazetikaren oinarriak eta farmakoak Euskal Herrian.

### **Osasun saila**

Eusko Jaurlaritzaren Osasun sailak argitaratutako “Osasun Plana 2013-2010. Osasun saileko osasun politika”. 88. orrialdean aipamen batzuk daude hezkuntzako Osasun-educiei buruz:

“Gazterian ohitura osasuntsuak hobetzea eta jarrera arriskutsuak murriztea”.

### **EKINTZAK:...**

4.4.2. Eskolako curriculumean jarri osasuntsuei (elikadura osasuntsua, ariketa fisikoa, alkohola, tabakoa eta mendetasunak, harreman

afektibo-sexualak) buruzko kontzeptu, prozedura eta jarreraren eduki eta gaitasunak sartzea sustatu.

4.4.8. Ariketa fisikoarekin eta elikadura osasuntsuarekin lotutako beste ekintza batzuk 5. Arloan daude jasota.

## **ATZERRIKO IKUSPEGIAK EUROPA**

Europa mailan Osasun edukiak modu ezberdinez ematen dira eta Eurodyce webgunean ez dago txosten zehatzik gai honi buruz, asko jota zehazten da nola herrialde gehienetan osasun edukian natur zientzietan eta gorputz hezkuntzan ematen direla eta Txipren soilik mantentzen diea ikasgai bakar bat moduan. Beste herrialde batzuetan zentroen arabera aukera dute ikasgai berezitua agertzeko ala ez.

Lehen Hezkuntzan badago elkarre bat, *Schools for Health in Europe* (SHE) zeinak osasunaren aldeko ekimenak koordinatu eta informatzen dituen. Hego Euskal Herrian Nafarroako Hezkuntza Dailak parte hartzen du.

### **Ameriketako Estatu Batuetako Osasun edukiak hezkuntzan *National Health Education Standards***

Osasunerako hezkuntza estandar nazionalak (NHES ingelesez) ikasleek gaitasunak hobesteko baliatu ziren, hezkuntzan dauden eragileek (irakasleek eta administrazioa) gida bat edukitzeko ikasketetan osasun-gaitasunak txertatzeko orduan. 1995 urtean argitaratu ziren AEBetako osasun elkarte ugariaren laguntzarekin: Minbiziaren Elkarte Amerikarra, Osasun Hezkuntzaren Elkarte Amerikarra, Osasun Eublikoaren Elkarte, Eskolako Osasunaren Elkarte eta Hezkuntza Fisikoko Elkarte.

NHESak osasun-hezkuntzaren erreferentzia dira eta 10 urteren ondoren berrikuspen bat egin zuten. Idatzita ageri dira ikasleek izan behar dituzten zortzi gaitasun orokorrak eta ikasturte ikasturte estandar hauek izan behar dituzten edukiak zehazten dira.

## DBHn osasun-hezkuntzako eduki urriak natur-

### zientzietan txertatu direnez gehienbat eta Batxilergoan nabarmen

### murritzitu direnez, gure ikasleen osasun-ezagutza gutxituz joan da

#### NHESko ESTANDARRAK

1. Ikasleek osasuna hobesteko eta gaixotasunen prebentziorako kontzeptuak ulertuko dituzte.

2. Ikasleek osasun jokabideetan eragina dituzten faktoreak aztertuko dituzte: familia, ikaskideak, kultura, komunikabideak eta teknologia.

3. Osasuna hobetzeko balizko informazioa, produktuak eta zerbitzuak lortzeko gaitasuna erakutsi behar dute.

4. Osasuna hobetzeko eta osasun-arriskuak saihesteko komunikazio gaitasunak erakutsi behar dituzte.

5. Ikasleek gaitasuna erakutsi behar dute osasuna hobesteko erabakiak hartzean.

6. Ikasleek osasuna hobetzea helburu duten trebetasunak lortzeko gaitasunak erakutsi behar dituzte.

7. Ikasleak osasuna hobetzeko jokabideak eta arriskuak murrizteko gaitasunak erakutsi behar dituzte.

8. Ikasleak osasunaren aldeko komunikazio gaitasunak landuko dituzte familia eta komunitatearen aurrean.

#### 2013ko inkesta medikuntzako lehen mailako ikasleei

2013ko abenduan Leioako lehen mailako 106 ikasleei inkesta bat banatu nien 20 osasun kontzeptuak beren unibertsitate aurreko ikasketetan ika-

si zituzten edo ez galdetzeko. Horietatik 10, kontzeptu anatomikoak ziren, eta beste 10, osasun zientzietan buruzkoak.

Erantzunetan antzeman zitekeen aldaketa nabarmenak daudela ikastetxe batetik bestera, bai publiko- en zein pribatuaren artean.

Inkestaren emaitzak:

- Oinarritzko anatomiako kontzeptu gehienek ezagutzen badituzte ere, ikastetxe askotako ezagutza maila oso eskasa da.

- Oro har, nerbio-sistemaren fisiologia gutxi ezagutzen da (droga-menpekotasunaren oinarriak ulertzeko moduan).

- Patologia (gaixotasunak) ez dira ia irakaskten.

- Promozioa eta prebentzioa oso gutxi lantzen da.

#### EZTABAIDA

Unibertsitate aurreko Hezkuntzak azken hamarkadetan lege-mar-ko nagusi ugari izan ditu: LOE, LOCE, LOGSE eta aurtengoa den LOMCE, denak Madrilgo Gobernuaren arabera-koak eta gure ikasleen jakintza-ere- muetan eta hezkuntzaren antolake- tan zuzeneko eragina izan dutenak. Horrela, DBHn osasun-hezkuntzako eduki urriak natur-zientzietan txerta- tu direnez gehienbat eta Batxilergoan nabarmen murritzitu direnez, gure ikasleen osasun-ezagutza gutxituz jo- an da.

Adibidez, Medikuntzako ikaske- tetara datozen ikasleetatik gutxi- k dute aukera anatomia hautazkoikag- ai gisa, institutu eta ikastoletan ikasteko, beraz ikasle horien gorpu- tzari buruzko ezagutza Lehen Hez- kuntzan edo DBHko eduki batzuetan oinarrituta dago. Are gehiago, gure gorputzaren fisiologiako arlo ugari (arnasketa, digestioa, nerbio-siste- ma, ...) ez dituzte ikasi karrerara hel- du arte. Aldaketa ugari ematen dira ikastetxe batetik bestera eta hori ant- zematen da ikasleen erantzunetan. Beste herrialdeekin konparatuz, osa- sun-hezkuntzaren trataera askoz ho- beagoa izan daiteke, adibidez ikasgai berezi bezala irakatsiz edo ikasleen

jakintza-ahalmenak sakontzeko era- biliz.

Gorputz Hezkuntzari dagokio- nez, Europako 2013ko txosten baten arabera, umeen % 80k eskolan baino ez dute kirola edo ariketa fisikoa egi- ten. Horregatik, oso garrantzitsua da gorputz heziketa hezkuntzan txerta- tzea eta ez uztea eskolaz kanpoko ekintza gisa, horiek borondatezkoak direlako eta ordaindu behar direlako.

Espainiaren lege aldaketa ugari- k ez dute batere errazten osasun edu- kien txertaketa finko bat egotea, Ameriketako estatu Batuetan ez be- zala, non 1999 urtetik hona osasun gaitasunak zehaztuta dauden eta erreferentzia izaten jarraitzen duten.

Nire ustez osasun-arloko eduki zabalagoak DBHko eta Batxilergoko mailetako lantzea berreskuratu behar dugu eta ez laga eskolaz kanpoko hitzaldietan soilik jorratzeko. Euskal curriculum berriaren ( Heziberri) ga- rapenaren aukera erabili beharko ge- nuke osasun-jakintza zabaltzeko eus- kal ikasleen artean eta AEBetan beza- la osasuneko profesionalen aholkuak aintzat hartu beharko lirarteke.

#### ONDORIO NAGUSIAK

- Arduratzeko moduko egoera ba- tean gaude, osasun-hezkuntzaren edukiak nabarmen jaitsi direlako az- ken urteotan, Batxilergoan bereziki.

- Hezkuntzan izandako hezkun- tza lege nagusien aldaketa ugari ez dute laguntzen osasun-hezkuntza- ren barruan eduki minimoak man- tentzeko. Sakabanaketa ugari dago osasun edukietan.

- Aldaketa horiek guztiek eragina zuzena izan dute osasunaren edukiak gutxitzeko, biologia molekularren edo genetikaren mesederako.

- Gazteen osasunaren arlo garran- tzitsuak diren sexu-heziketa eta dro- ga-mendekotasuna ez dira ikasgele- tako gaietan jorratzen, eskolaz kan- poko noizbehinkako hitzaldietan eta kanpoko adituen laguntzarekin bai- zik.

- Osasun profesionalen aholkuak ez dira behar beste aintzat hartzen.

# argitalpenak



## Pintzel magikoa

Didier Dufresne / Stéphane Girel

### IKAS

Wang Lik, Ipar Txinako laborari gazteak, munduko edertasunak margotu nahi lituzke. Baina pobreegia da pintzel baten erosteko. Gau batez, ametsetan, gizon zahar bat agertzen zaio. Wang Li iratzartzen delarik, pintzel magikoa eskuetan du, eta margotzen duena errealitate bihurtzen hasten da.



## Zorioneko hondamendia

Adela Turín / Nella Bosnia

### PAMIELA-KALANDRAKA

Errutina da nagusi Sagueta familiaren bizimoduak. Rolak zorrotz bereizita daude. Sagueta jauna lanetik nekatuta itzultzen da eta etxera iristen deskantsatu egin nahi du. Emazteak etxea txukundu eta afaria prestatuta du gizona iristen denerako. Hondamendia gertatuko da eta dena hankaz gora jarriko da.



## Aurretik, ondoren

Anne-Margot R. / Matthias Aregui

### TTARTTALO

Bizitzan dena aldatzen da, etengabe... Esaldi horretxek laburbiltzen du liburu honetan lantzen den gaia: denborak eragiten dituen aldaketak. Beldarra tximeleta bihurtzen da; harri batetik eskultura bat sortzen; ardiaren ilea artile bihurtzen da; txita txikia, beltxarga; egunaren ondoren gaua dator, eta gauaren ondotik, eguna...



## Maud munstro beldurgarria

Working Partners L. / Sarah Horne

### DESCLEE

Maud Montague, 10 urteko neskatila da ipuin bilduma honen protagonista. Munstroak, xomorroak eta gauza beldurgarriak atsegin ditu, eta horrek arazoak sortuko dizkio eskolan. Etxean ere ez da eroso sentitzen, senideek ez baitute ulertzen. Eskerrak Quentin maskota, urtebeteko arratoia, duen beti alboan.



## Sukaldeko frikiak

Audren / Oriol Malet

### IBAIZABAL

Milosen familia berezi samarra da. Milos bera eta haren lau anaiak amarekin bizi dira, Parisen. Ama berandu iristen da lanetik, beti nekatuta, eta gorroto du sukaldean aritzea. Horregatik, Milosek zerbait egitea erabakitzen du: Milos bera eta Virgile anaia arduratuko dira etxeko elikaduraz aurrerantzean.



## Doministripu jauna

Leire Bilbao / Antton Olariaga

### ELKAR

Doministripu jaunak doministiku egiten zuen bakoitzean, istripu bat gertatzen zen. Herriko kale estuetatik zebilela usin egiten bazuen, balkoietatik eskegita zeuden arropak lekuz aldatzen ziren. Hirugarren pisukoaren galtzontziloak, bigarren pisura. Laugarrengoaren praka bakeroak bosgarrenera...

# hik hasi-ren proposamena

**ONDARTXO, ITSAS KULTURAREN ZENTROA**

## Itsas ondarea ezagutzeko erakusketa bizia

**Pasaia San Pedroko herria pasa eta itsasertzeko paseoa jarraituz iristen da Ondartxo Itsas Kulturaren Zentrorra. Itsas kultura eta ondarea bere ikuspegi guztietan lantzeko helburuarekin duela urte batzuk sortu zen Albaola elkarteak kudeatzen du berau. Uneotan, Donostia 2016, Europako Kultur Hiriburutzaren baitan, San Joan baleontziaren erreplika eraikitzen ari dira; itsas arotzek eta artisau tradizionalak bisitarien aurrean lanean dihardute, erakusketa bizia eskainiz.**

Euskal Herrian ontzigintzak berebiziko garrantzia izan du historian zehar. Mendeetako tradizioari esker, euskaldunak itsas teknologian oso aurreratuak izan ziren iraganean, eta itsasoak nahiz ontzigintzak eragin handia izan dute herriaren garapenean. Orain dela hamarraldi batzuk, ordea, Euskal Herriko artisau-ontziolen ateak betiko ixten hasi ziren, eta ondorioz, ontzioletako zurginen lanbidea ia erabat desagertu zen, eta mendeetan garatutako jakinduria galbidetan jarri. 2000. urtean, Albaola Elkarteak Oarsoaldeako Garapen Agentziaren laguntzarekin Itsasontzi Tradizionalen Ikerketa eta Eraikuntza Zentroa sortu zuen Pasai Donibanen, itsas kultura berreskuratu eta ezagutarazteko.

Hamar urteko ibilbide emankorraren ondoren, 2010eko otsailean



Ondartxo Itsas Kulturaren Zentroa inauguratu zen Pasai San Pedroko Ondartxoko kalan, lehen Astilleros Askorreta zegoen egoitzan. Bertan bisitariak euskaldunek itsasoarekin izandako harremana gertutik ezagutzeko aukera dute, baita bertatik bertara itsasontziak eta beroien erakuntza ikusi eta bizitzeko ere.

Ondartxon, alde batetik, balio etnografikoa duten itsasontziak daude: Gipuzkoako Foru Aldundiak bere Untzi museoaren bitartez urtetan zehar bildutako ontziak dira; ontzi horiei buruzko (ibaietakoak, arrantzon-

tziak, aisialdikoak, kirolekoak, portulanetarakoak) datuak eta ezaugarriak azaltzen zaizkio bisitariari. Bestetik ordea, euskaldunek antzina erabilitako ontzien erreplikak egiten dira. Horietako bat da San Joan baliontzia. Bisitariak, ohiko materialak eta teknikak erabiliz, arotzak lanean ikusi ditzakete, haiei galderak egin eta prozesuari buruzko azalpenak zuzenean jaso. Izan ere, bisitariak, museoan dagoenarekin, bizipen parte-hartzailea eta interaktiboa izatea da Ondartxoren helburuetako bat.

San Joan baleontzia ardatz hartu-





ta, ontzigintza tradizionalaren eta balearen arrantzaren inguruko unibertsoko bilakatu dute Ondartxo. XVI. mendeko baleontziaren berreraikitze-prozesu bisitagarria egiten dihardute. Xabier Agote, Albaola elkartearen presidentea azaldutako eran, San Joan baleontzia egiten joango dira eta bisitariak hori ikusiko du, nola egiten doan: “Hemen jendeak lanean ikusiko gaitu beti. Baina horrekin batera gauza asko gertatuko dira eta bisitaria partaide izatea nahi dugu. Aspertuta gaude ikusi bakarrik egiten diren ereduekin, guk beste modu ba-

tean lantzen dugu ondarea, behetik gora, eta hona datorrenak parte hartzeko aukera izango du”.

#### Egitarau pedagogikoa

Ikastetxeei, aisialdi-taldeei, familiei nahiz bestelako elkartei zuzenduriko eskaintza daukate Ondartxo Itsas Kulturaren Zentroan. San Joan baleontziaren eraikuntzak gainera, eskolako curriculumeko gai guztiak lantzeko aukera ematen duela diote arduradunek: teknologia, lanbide tradizionalak, basoa, hizkuntza, zientzia, kirola... DBHko 1, 2, 3 eta 4. mai-



## ONDARTXO ITSAS KULTURAREN ZENTROA

Ondartxo pasealekua, 1  
20110 Pasaia  
943 39 24 26

bisitak@albaola.com  
www.albaola.com

\*Ordutegia eta prezioak jakin nahi izanez gero, jarri eurekin harremanetan.

lako ikasleei zuzenduta, 4 urteko zeharkako unitate didaktikoak sortzen ari dira, Ziburuko Piarres Larzabal Kolegioarekin elkarlanean. Dagoeneko badute helburu didaktikoarekin erabil daitekeen materiala ere; hala nola, *Apaizac obeto: azken balea txaluparen kondaira* dokumentala (euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez) edota *Beothuk azken txaluparen kondaira* komikia euskaraz eta ingelesez.

Horrez gain, “Marinel gazteak” programa sortu dute euskal itsas-tradizioetik eratorritako itsasontzietan nabigatzen ikas dezaten gazteek. Hainbat mailatako ikastaroak ematen dituzte adin guztientako ikasleentzat: belaz eta arraunean nabigatzeko aukera dute hurrek antzina izan ziren itsasontzien antzekoetan. Nabigatzen ikasteaz gain, taldean lan egiten trebatzeko, itsas natur ingurunea bisitatzeko eta bertako itsas identitatea ezagutzeko ere balio die ikasleei programak. Bestalde, berriz, “Nire lehen arraun saioa” egitasmoaren baitan, ordu bateko ibilaldia egiten dute ikasleek arraunean, ontzian lehen esperientzia bizitzeko. Azkenik, Irrien Lagunak Klubaren txokoan Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzenduriko ekintzak antolatzen dituzte. Bisitak era dibertigarrian diseinatuz, euskal itsas-kultura gaztetxoeri ezagutarazteko xedez.



**Imanol EPELDE PAGOLA**

IDAZLEA ETA IRAKASLEA

Andereño, komunera joan al naiteke galdetu nion. Paretean geneukan itsatsia esaldia: Komunera joan al naiteke? Balindaren garaiak ziren eta errotik moztu behar zen ohitura. Balinda komunera joan galdetzen zue-na larriarekin geratzen zen! Izorrai!

Nik berak eskatu bezala egin nuen galdera. Baina ezetz erantzun zidan. Ez nuela komunera joateko baime-nik. Enegarrenean eman zidan baiez-koa. Kakalarriari ezin eutsita, pasillo luzean korrika nindoala egin zidan huts esfinterrak. Eta atera zitzaidan ipurdiko poesia dena. Bezperan le-

## Komunera joan al naiteke?

hen jaunartzean estreinatu nituen gal-tza zuri-zuritan. Negarrez itzuli nin-tzen gelara. Eta aitortu behar izan nuen klase guztiaren aurrean galtze-tan egin nuela. Kaka. Umiliazio hori nahikoa ez, bizikletan kaka egin ber-ritan eserita egin behar izan nuen etxerako bide osoa. Ikastolatik Azken Portu gorainokoa. Baina, ez. Isil na-din. Hau ez da eta hemen kontatu nahi nuena.

Plastidecorrak gustatzen zitzaiz-kidan garaiak ziren. Eta folio zuriaren aurrean jartzea eta margotzea. Maite nuen pintura haien usaina, eta galde-tzen nion neure buruari zergatik zi-tuen mugak folioak. Irakasleak agin-duta egin nuen marrazki bat. Gaia li-brea. Handik egun batzuetara itzuli zizkigun lanak. Ikasle bakoitzari ba-nan bana. Marrazkirik onenetik hasi-ta eskasetaraino. Ordena horretan. Hasieratik egon nintzen, nireak oraintxe-behar-dik-ba pentsatzen. Baina azkena izan nintzen marrazkia jasotzen. Edo azken bigarrena. Ber-

din du. Mahatik altzatu, irakasleare-neraino joan, marrazkia hartu eta buelta. Umiliazioaren pasiloan. Ikas-kideen barre artean. Plastidecorrak hartzean eskuak dardarka jartzen zaizkit ordutik. Usainak mareatu egi-ten nau. Baina, ez da hau, ez da hau ere kontatu nahi nuena.


Irakasle berberak bultzatu nin-duen bertso-eskolara. Irakasle berbe-rak eraiki zigun hitzen parke bat txi-rristaz betea. Irakasle berberak sortu zigun lagun talde bat hizkuntzarekin jolasteko. Eta eman bizitza kantatu ahal izateko plazera. Eta hori ere, ezin izango diot inoiz behar bezala esker-tu. Baina ez da hau ere kontatu nahi nuena.

Edo bai.

Irakasle izateko zer egin behar du-gun jakitea garrantzitsua da. Baina, nago, garrantzitsuagoa delakoan gar-bi izatea zer ez dugun inoiz egin behar. Hasi gaitezen hortik. Horrela zuzen akaso ez, baina oker behintzat ez baikara ibiliko.

**“Umek kiroletan lortzen dituzten emaitzei gurasoek garrantzi handia ematen dietenez, frustratu egiten dira eta, horren ondorioz, kirola uzteko arriskuan eror daitezke. Oso garrantzitsua da haurrak presiorik gabe jolastea, disfrutatzen utzi behar zaie”**

**Luis Mari Zulaika**





# U. 11 mik kalejirak

BILBO 17:30 JESUSEN BIHOTZEAN  
GASTEIZ 19:00 ANDRA MARI ZURIAREN PLAZAN  
DONOSTIA 17:30 BOULEVARDEAN  
IRUÑA 17:30 ANTONIUTIN

**Euskal Herrian  
guse hezkuntza esaki!**

**LOMCEri EZ!  
INPOSAKETEi EZ!**



## PEDAGOGIA 2015: Biltzar pedagogikoa KUBAn

Bi urtetik behin egiten den Nazioarteko “**Latinoamerika eta Karibe. Hezitzaileen batasunerako topaketa**” biltzarra egingo da 2015eko urtarrilean. Aurrekoan, 2013an, 42 herrialdetatik joandako 4.700 hezitzailek hartu zuten parte.

Inork joan nahiko balu, [www.pedagogiacuba.com](http://www.pedagogiacuba.com) helbidean jaso dezake informazioa.

Norbaitek laguntza beharko balu, HIK HASI prest dago esku bat botatzeko.



### **BILTZAR PEDAGOGIKOA**

2015eko urtarrilaren 26tik 30era izango da.

Biltzarraz gain, hango eskolaren bat bisitatzeko eta ikuskizunetan parte hartzeko aukera ere izaten da.

### **Hezkuntzako edozein aurkezpena egin liteke**

Horren laburpena 2014ko AZAROAREN 20rako bidali behar da.

**Baldintzak, informazioa eta izen ematea: [www.pedagogiacuba.com](http://www.pedagogiacuba.com)**

# Reggio Emilia



**jardunaldiak**

## **Italiako REGGIO EMILIA. 0-3 haur-eskolen pedagogiaren azalpena eta praktika**

Mundu zabalean oso ezagunak dira Reggio Emiliako haur eskolak. Alde batetik, parte-hartzaile eta gertuko gestioa duten Udal Haur Eskolak direlako; eta bestetik, oinarritu diren Malaguzziren pedagogiak haur bakoitzaren garapen osoa duelako xede. Mende erdia baino gehiago 0-6 urte bitarteko haurrekin aritu badira ere, azken 5 urtetan, eta, ildo pedagogiko bera erabiliz, 6-11 (Lehen Hezkuntza) jarri dute praktikan.

### **Hizlariak:**

- MADDALENA TEDESCHI pedagogo. Reggio Emiliako pedagogia arduraduna
- CHIARA SPAGGIARI hezitzailea. Reggio Emiliako Gianni Rodari 0-3 haur eskolako hezitzailea
- ALFREDO HOYUELOS europar doktorea. Tailerista eta UPNAko irakaslea

**Azaroaren 14an BILBOn eta 15ean DONOSTIAN**

**informazio osoa eta izena emateko aukera:**

***www.hikhasi.com* Tel.: 943 371 408**